



Alderdi Politikoen Legeak hamar urte

Ilegalizazioak, atxiloketak, boto baliogabetuak, egoitza itxiak...
Noraino tenka daiteke soka?



- **UEU** Berrogei urteren ondoren, euskal unibertsitatea oraindik amets
- **Bastidako ikastola** Ikasle ohiak guraso bihurtuta, euskara etxeetan sartu da
- **Frantziako Legebiltzarrerako bozak** Euskal Herriari dagozkion aulkiak ezkerrean lerratzeko aukera
- **Etorkinak Azkoitian** Udalak, AEK-k eta ikastetxeek bat hartu dute haurrak euskalduntzeko

SORTUKO DIRA BESTEAK

XABIER LETE
GOGOAN

EÑAUT ELORRIETA
MIKEL URDANGARIN
ALEX SARDUI (GATIBU)
PIER PAUL BERZAITZ
ARANTXA IRAZUSTA
PETTI

BEASAIN
ANTZIZAR KIROLDEGIA

EKAINAK 9
22:30tan



Antolatzailea:

Laguntzaileak:

Sarrera: 15€
Salmenta: leihatila eta
www.kutxasarrerak.net



Aurretikako salmenta:
BEASAIN: Baskana eta Arrano
ORDIZIA: Amonane eta Olano
ZALDIBIA: Joxepane
LAZKAO: Heren eta Gerriko Liburu denda
ATAUN: Troskaeta eta Bitor
ORMAIZTEGI: Itxune
IDIAZABAL: Xume
SEGURA: Elorripe
LEGORRETA: Olaso
Bareak Dendari Elkarte



Beasaino udala

argia

an@a



AAM KULTUR
PROMOTORA
919421153



BAREAK
BEASAIN



GIB

hitza





Azaleko argazkia:
LUIS JAUREGIALTZO/
ARGAZKI PRESS

Azala: GARBINE
UBEDA GOIKOETXEA

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Ixabel Bereziartua. Zuzendaria: Xabier Letona. Zuzendariaren albokoa: Pello Zubiria. Astekariko erredakzio-burua: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Garbine Ubeda Goikoetxea. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza. Euskara: Onintza Iureta. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaitz. www.argia.com: Gorka Bereziartua, Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produzioa: ANTZA, S.A.L.

Kudeaketa eta salmenta: Berdaitz Goia. Harpidetzak: Karlos Olasolo. Idazkaritza teknikoak: Aloan Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua, Olatz Korta. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Jone Arzallus.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxak: 943 373403 (erredakzioa), 943 361048 (komertziala). Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruñ. Tel: 559 476000. Faxe: 559 476001. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuinta. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetzak: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: SS-837-2012. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 138 euro. Ipar Euskal Herria: 168 euro. Espainia: 138 euro. Beste atzerriak: 173 euro. Airez: 271 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaiña Taldeko partaidea da.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAIA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



Deabruaren abokatua

• **Eneko Landaburu:** «Hildako arrainak baino ez ditu eramaten korronteak». ARITZ GALARRAGA / 4

Asteko gaia

• **UEUk 40 urte.** Bada oraindik zer aldarrikatu. ONINTZA IRURETA AZKUNE / 5

Pertsonaia

• **Stephen Moran 'Smiley':** «Irlandarrok benetako euskaldunak gara!». REYES ILINTXETA / 10

Gaiak

• **Bastida ikastola.** Ikasle ohiak etorkizuneko hazi. JON ARIZKUN / 16

Iritziak

- **Gora Pro Nobis** ASISKO URMENETA / 20
- Euskara hedatzeko modu xelebreak. DABID ANAUT / 21
- **Hiruko txikian** Bankurik. JOXEMARI OSTOLAZA / 21
- Zenbat pitilin! ALAITZ VIVES / 22
- **Txandan** Irakasle putz. JOXERRA GARZIA / 22

Erdiko kaiera

- **'ElectroClass' film dokumentala.** Telebistatik, telebistarako, telebistaren kontra. IRATXE ESNAOLA / 23
- **Xiberotarrak.** Etxean profetak. UNAI BREA / 26
- **Hondarribiko Itsas Etxea.** Kulturaren agertoki berria. IRATI SARASUA ARABAOLAZA / 28
- **Liburuak** ARITZ GALARRAGA / 30
- **Diskoak** IKER BARANDIARAN / 31
- **Ezpalak** JON TORNER / 32
- **Abarrak** GORKA BEREZIARTUA / 33
- **Denbora-pasak** ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 34
- **Zientzia eta teknologia** JOXERRA AIZPURUA / 36
- **Landareak** JAKOBA ERREKONDO / 37
- **Denboraren makina** NAGORE IRAZUSTABARRENA / 38

Termometroa

- **Alderdi Politikoen Legea.** Hamarkada bat ilegalizaturik. URKO APAOLAZA / 39
- **Frantziako Legebiltzarrerako bozak.** Ipar Euskal Herriko hiru diputatuak aldatzeko zorian. MIKEL ASURMENDI / 42
- **Etorkinak eskolan' egitasmoa.** Azkoitiko haurrak euskaltegira doaz. ARAITZ MUGURUZA EIZAGIRRE / 44
- **Bero-beroa** JUAN MARI ARREGI, ONINTZA IRURETA AZKUNE / 46
- **Maltzagatik** XABIER LETONA / 47
- **Net Hurbil** Txernobylen ikasiak Fukushima-ko gogoratuz Genevan. PELLO ZUBIRIA / 48

Azkena

• **Athletic.** JOSE IGNAZIO ANSORENA / 50



“Hildako arrainak baino ez ditu eramaten korronteak”

Eneko Landaburu

Mantal zuririk gabeko medikua.

ARITZ GALARRAGA

Argazia: Mamen Maeztu

Nekatuta nago, mediku jauna; ze pastilla hartu behar dut?

Pentsatu zer utz dezakezun: gehiegizko eta kalitate eskaseko janaria, kafearen gisako pizgarriak, botiken abusua...

Pentsatzeko denborarik ere ez daukat eta!

Bazen behin aizkora zorrozteko “denborarik ez zuen” egurketari bat, eta gero eta denbora gehiago behar zuen egur kantitate berdina mozteko. Deskantsatzen duzun bitartean akaso aurkituko dituzu nekearen kausak.

Deskantsatzeak etxean geratzea esan nahi du? Lanetik botako naute.

Alfertzat hartuko zaituzten beldurrik gabe deskantsatu, eta aurkituko duzu modua lanetik bota ez zaitzaten.

Esaiozu zuk gure nagusiari gorputzak bere burua sendatzeko mekanismoak dituela...

Esplikaiozu japoniarrek atsedean hartzeko guneak sortu dituztela lantokietan. Deskantsatuta gutxiago gaixotzen gara eta produktibitatea handitu egiten da.

Produktibitatea, ezagutzen dugu hitz hori; prebentzioa ez dakit hainbeste.

Bada, errazagoa da zerbaiti aurre hartzea gero osatzea baino. Aurre hartzeak osatzeko bidea ere eman dezake, gainera. Erretzeari utzi eta sei hilabetera zure berezko jakinduriak inpotentzia sexuala senda dezake.

Higienea, behintzat, praktikatzen dut: egunean hirutan dutxatzen naiz.

Higieneak bizitzeko artea esan nahi du grezieraz. Bizitzen jakin gabe gaixo bukatzen dugu. Garbiketara mugatu da, aitzitik, higiena. Eta produktu toxiko eta kutsatzaileekin garbitu ohi dugu.

Dietarik ez dut egingo, ordea: ez lodi deitu niri.

Elikadura modernoak gaixotu egiten gaitu. Gehiegizko pisuak gaixotasun asko errazten ditu. Posible da gaizki elikatua egon, kilorik soberan izan ez, eta gaixotzea.

A, baina kontsumitzeari ez diot utziko. Libre egiten gaitu!

Enpresek eta horien morroi diren gobernuek ahalak eta bi egiten dituzte kontsumitzeari utz ez diezaigun. Erosketen menpeko behar gaituzte. Kontsumitzeak dohakabe egiten gaitu eta planeta txikitzen du. Hobeto bizi gaitzke, gutxiagorekin.

Ezin, ordea, larunbat gaueko pastillarik gabe.

Ahal duzu, ohituraren indarrari zure erabaki sendo eta iraunkorra kontrajarrita. Beharrik baduzu laguntza eskatu, zeure buruari aberia konponezin bat egin aurretik.

Gauza gehiegi eskatzen ote didazun...

Zailtasunik gabeko bizitza buru ahalmenak atrofiatzen dituen aspermena da. Gainditu zailtasunen aurreko beldurra. Hildako arrainak baino ez ditu eramaten korronteak. ■



UEUk 40 urte

Bada oraindik zer aldarrikatu

1973an Donibane Lohizunen Udako Ikastaroak antolatu ziren. Uda hura izan zen Udako Euskal Unibertsitatearen sorrera. Helburu argia zuen: Euskal Unibertsitatea sortzea. Unibertsitatearen eta euskararen paisajeak asko aldatu dira, onerako, baina Euskal Unibertsitaterik ez dago. Xedeak hor segitzen du.

ONINTZA IRURETA AZKUNE

GORKA RUBIO / ARGAZKI PRESS



Eibarko Markeskoa Jauregian 2010eko udazkenean eskainitako ikastaroa.



Ikasle profila asko aldatu da. Ordukoak aste osoa igarotzen zuen ikastaroetan eta bateko Matematika eta besteko Biologia eskolak hartzen zituen. Euskararekiko atxikimendua oso sendoa zen. Mikel Aizpuru UEUko zuzendari ohiak horrela deskribatu du gaurko ikaslea: “Gaur egun udako eskaintza hazi egin da hemengo unibertsitateetan, eta atzerrira joateko aukera ere badute. Orain ikasleak ez du begiratzen zein hizkuntzatan diren ikastaroak, gaiari begiratzen dio, edo parrandari”.

DUELA 40 URTE, dena edo gehiena egiteko zegoen. Unibertsitate publiko bateraturik ez zegoen Euskal Herrian, fakultate solteak, eta gehienak pribatuak baizik. Askok igarotzen zituzten urteak kanpoko campusetan ikasten. Euskararen eskaintzari dagokionez, desertua nagusi. Eduki akademikoak euskaraz lantzerik zegoenik ere, batek baino gehiagok jarri zuen zalantza. Historia, Biologia, Medikuntza... euskaraz irakatsi? Gaur egun galdera zozoa dirudi, baina duela 40 urte ez.

1973an Udako Ikastaroekin jarri zen abian UEU, eta urteen poderioz, uda sasoko hamabost eguneko ikastaro haiek garapen handia izan dute. Gaur egun ere mantentzen diren bi xedeak zituzten orduan. Bata, Euskal Unibertsitatea sortzeko beharra aldarrikatzea eta horretan eragile izatea. Bestea, euskara eta unibertsitatea lotzeko ahalegin erreala egitea. Alegia, euskal komunitate zientifikoa sakabanatuta zegoen Euskal Herriko hainbat fakultatetan eta atzerriko unibertsitateetan. Ikasle eta irakasle euskaldunak nolabait biltzeko modua egin behar zen, eta lan hori UEUk egin zezakeen. UEU topagune izateaz gain ekoizle izango zen, hau da, unibertsitate gaiak ekoiztiko zituen euskaraz eta komunitate zientifikoaren eta oro har gizartearen esku jarriko zituen.

Zer da Euskal Unibertsitatea? Nolako behar zuen izan? Mikel Aizpururi galdetu diogu, UEUko zuzendari izan zenari (1996-2000) eta *Udako Euskal Unibertsitatea euskal kulturgintzan* liburua idatzi duenari: “Beti

“Nahiz eta bokazioa unibertsitate publikoa egitea izan, lege zirrikituak bilatzeko unibertsitate txiki pribatua egitea da joera”

KARMELE ARTETXE, UEUKO ZUZENDARIA

egon da iritzi desberdintasuna. Garai batean eskari zabalduena zen unibertsitate publikoa behar zela. EHU sortu zen eta horren harira iritzi diferenteak mahai gainean zeuden. Publikoa izan behar zuela garbi zegoen, baina batzuen ustez, horrez gain Hego Euskal Herriko lau probintziak hartu behar zituen. UEUren ekarpena zen euskaraz izan behar zuela. Gainera, Frantziako eta Espainiako irakaskuntza ereduak bestelakoa irudikatzen zen”. Publikotasuna, lurraldetasuna, euskara eta irakaskuntza ereduak; horiek ziren unibertsitatea sortzeko ardatz nagusiak. Aizpuruk dioenez, EHU sortuta, unibertsitate berritzailearen eta euskaldunaren aldeko erre-

ferentzia bakar geratu zen UEU. EHUren bidez, kanpoan zebilen irakasle eta ikasle asko itzuli zen, eta bestalde, euskara gerorako utzi zuen erakunde publikoak.

Euskal Unibertsitatea, nolakoa?

Horiek duela hamarkada batzuetako kontuak dira. Ibilbidea luzea izan da eta Euskal Unibertsitateak formulazio ugari izan du. Mikel Aizpuruk aldarrikapen horren inguruan dagoen pulstua honela laburbildu du: “Batzuen ustez, Euskal Unibertsitateak euskaraz lana egiten duten unibertsitarioen bilgune izan behar du, eta beste batzuen ustez, unibertsitate berria egin behar da, publikoa eta titulu ofizialak emango dituena. UEUk bigarrena defendatzen du, baina egitea zaila da, baliabideak mugatuak dira eta egindako



UEUK hiru aldizkari argitaratzen ditu. *Uztarok* Giza eta Gizarte Zientzietako artikulua argitaratzen ditu 1990az geroztik, urtean lau zenbaki. Arkitekturaz *Aldiri* aldizkari elektronikoa argitaratzen du, baita historiari buruzko *Kondaira* agerkaria ere.



1977. urtetik unibertsitate mailako liburuak (saiakerak eta testuliburuak) argitaratu ditu. 350 liburu inprimatu ditu eta deskatalogatuta daudenak *Buruxkak* liburutegi digitalean daude. Irudian, azkeneko liburuaren azala.



Inguma, euskal komunitate zientifikoaren datu-basea, 2000. urtean sortu zuten. Maila akademikoan euskaraz ekoizitakoa bildu eta interesa duenarentzat bilgune izatea da Ingumaren helburua.

Eusko Jaurlaritzaren aitortzarik gabe

180.000 euroko diru-laguntza kendu dio aurten Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak UEUri. Ez da edozein modutako diru-laguntza, zuzeneko partida osoa zen, izenduna. Artetxeren ustez, bi gauza esan nahi ditu laguntzarik gabe gelditu izanak: “Gure biziraupenerako ezinbestekoa zena kendu digute, UEUren azpiegiturari eragiten baitio eta erakundearen ekarpena, ibilbidea, aitortzarik gabe uzten du. Hemendik aurrera egitasmo zehatzak aurkeztu behar ditugu Jaurlaritzaren eta diputazioen deialdietara, baina ez dugu izango 1998an Jaurlaritzatik lortu genuen aitortza”. Laguntza desagertzeak UEUn izan duen eragina agerikoa da. Iruñeko eta Baionako egoitzetan lanean ari ziren langile banaren kontratuak etenda geratu dira, eta Eibarko eta Bilboko egoitzetako 18 langile ingururen kontratuetan murrizketak eta Lan Erregulazio Espedienteak aplikatu dituzte. Murrizketek lan erritmoan eragiterik ez dute nahi, ordea. Baionako eta Iruñeko egoitzak mantendu egingo dituzte eta hango bazkideen bidez (UEUK 1.200 inguru ditu) jardueri jarraipena eman nahi diete.

ahaleginek ez dute emaitza onik lortu”. Azken saiakera 2010-211 ikasturterako egin zen. Euskal Unibertsitatearen aldeko Fundazioak (AEK, EKT, Elkar Fundazioa, Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa, Ipar Hegoa Fundazioa, Kontseilua, Nazio Eztabaida Gunea eta UEU) ikasturte hartan Tolosan zortzi titulazio abian jarriko zituela iragarri zuten. Ez zen hala gertatu eta oraingoz bide hori etenda dago. Karmele Artetxek, UEUko gaur egungo zuzendariak, hala esan digu: “Nahiz eta bokazioa unibertsitate publikoa egitea izan, lege zirrikituak bilatzeko unibertsitate txiki pribatua egitea da joera. Unibertsitatearen sorreraren proposamena parlamentura eraman behar zen, baina ez gara heldu hori egitera. Titulazioak prest daude, baina bestelako lanak egin behar dira”.

Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Zerbitzuak 2003an abiarazitako ekimena da ZIO (Zientzia Irakurle Orentzat). Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzari esker urterik urte osatuz doa ZIO bilduma. Zientziara hurbiltzeko liburu erakargarri eta erabilgarriak eskainiz, euskara eta jakintza uztarturik jartzen dira edonoren esku.

BIZKAIA BIZIA

Historiografia feminista, bioeraikuntza eta beste

Baionan, Eibarren eta Iruñean egingo dira UEUko ikastaroak, ekainaren 26an hasi eta uztailaren 27ra arte. Gaiak, beti bezala, ugari eta askotarikoak: kalamua, Txillardegi, ETBren 30 urteak, sexologia, haur psikologia, robotika... Ondoko lerroetan historiografia feministari buruzkoa eta bioeraikuntza ikastaroa aurkeztuko dizkizuegu.



Ikastaroan euskal emakumeen historia deskribatze hutsa baino, behaketa feminista egingo dute. Ezkerreko argazkian, 1913an, Hondarribian, emakumeak sareak konpontzen. Eskuineko argazkiko eraikina bioeraikuntzaren oinarriak jarraituz ari dira egiten.

UEUk Gite-Ipeseekin (Gizarte Ikerketarako Talde Eragilea) elkarlanean antolatu du *Euskal emakumeen historia osatzen* ikastaroa. Eibarren izango da uztailaren 9an eta 10ean. Gite-Ipesek Euskal Herriko emakumeen historiaz pare bat liburu argitaratuak ditu, arrakasta dutenak. Kontua da, liburuok jasotzen dituzten eduki berrienak 1990eko hamarkadakoak direla. Azken bi hamarkadatan zein ikerketa egin diren, alegia, historiografia feministak Euskal Herrian zein pauso eman dituen jakiteko garaia dela pentsatu du Gite-Ipesek. Besteak beste, ikastaroa baliatu nahi dute horretarako.

Bost hizlari izango dira eta bakoitzak bere ikerketen ildoak azalduko ditu: Anuntxi Arana (*Sexismoa, gaitz zabar eta iraunkorra*), Marikita Tambourin (*Emazteak euskal eremuan: Ipar Euskal Herrian*), Anne-Marie Lagarde (*Sexuen arteko simetria euskal jendar-tean*), Oihane Valero (*Emakumeak eta lana: aldatetak eta ekarpenak*) eta Amaia Andrieu (*Euskal feminismoaren bilakaera. Emakumeen*

**Bioeraikuntzaren aldekoen ustez,
oraingo eraikuntza moduak
munduarekiko eta gizakiarekiko
harremana eteten du**

antolaketa eta borrokak). Antolatzaileen asmoa hizlariak eta ikastaroko parte-hartzaileak jakingaiak elkarbanatzea eta eztabaidatzea da; ikasleak ere halakoak espero dituzte: euskal emakumeen historia lantzen ari direnak edo landuko dutenak.

Historiografia feminista landuko dute eta hala azaldu digu Haizea Belza Gite-Ipeseko koordinatzaileak: “Gure asmoa ez da emakumeak non zeuden, zein lan egiten zuten besterik gabe kontatzea, hau da, emakumeen egunerokoaren deskribapena egitea. Emakumeek bizirauteko estrategiak garatu dituzte historian zehar eta guk horien zergatiak aurkitu nahi ditugu. Emakumeen historia deskribatze hutsa egiten baduzu, ez dakizu adibidez zergatik emakumeak etxean egiten zuen lan eta ez hainbeste industrian?”

Natura eta gu izorratu gabe eraiki

Bioeraikuntza eta geobiologia: bizitzeko eraiki ikastaroa uztailaren 11n eta 12an Eibarren eskainiko dute. Inhar Agirrezabal Saenz de Santa-

maria izango da irakasleetako bat, Arkitekto eta Bioeraikuntza masterreko ikaslea. Agirrezabalek badaki nolako eraikuntza estiloa ez duen gogoko, gaur egunekoak baino arkitektura eta eraikuntza prozesu zentzuzkoagoak aldarrikatzen ditu. UEUKo ikastaroan horixe nahi dute egin, bioeraikuntzaren oinarri nagusiak azaldu, parte-hartzaileak bioeraikuntzaren onurez jabe daitezen. Ez da ikastaro arras zientifikoa izango, edozein herritarrentzako modukoa prestatu dute. Bioeraikuntzaren aldekoen ustez, oraingo arkitektura eta eraikuntza moduak munduarekiko eta gizakiarekiko harremana eteten du. Azken urteotan eraikuntza, Agirrezabalen ustez, irizpide ekonomikoak kontuan hartuta egin da eta ondorioz benetako erabiltzaileak eta helburuak zein diren ahaztu egin zaigu. Bioeraikuntzak beste begi batzuekin begiratzeko aukera ematen du, alegia, “etxebizitzak gure hirugarren azala direla ulertzea”. Bioeraikuntzak arreta berezia jartzen die munduaren eta gizakiaren osasunari. Agirrezabali, eraikuntza ulertzeko bi kontzepuen arteko aldea adibideen bidez azaltzeko eskatu diogu. Espainiako Estatuak kontsumitzen duen energiaren %40 ohiko eraikuntzak xahutzen du, adibidez. Eraikuntza prozesua abian denean etengabe zulatzen ari dira harrobiak eta dena amaitzen denean berriz, zaborteziak hondakinez beteta geratzen dira. Garai bateko baserriaren adibidea jarri du Agirrezabalek, baserria erortzen zenean hango piezak berriz erabiltzen ziren baserri berria jasotzeko. Gaur egun ezinezkoa da horrelako zerbaite egitea.

Gaur egungo eraikuntza moldeak nola gizakiaren premietatik urrun dabilen ikusteko, gure osasunarentzat kaltegarriak diren bideak aipatu ditu Agirrezabalek. Esate baterako, hotzetik, berotik edo hezetasunetik isolatzeko material oso onak erabiltzen dira; beste kontu bat da hormetatik arnasten dugun hori osasuntsua den. Eraikinetako fatxadak aluminioarekin ixtea ohikoa da, eta material hori toxikoa da. Hormak margotzeko erabiltzen diren pinturak ere, askotan, toxikoak dira. Kotoizko elastikoa jantzi beharrean larruazalaren gainean zira jantzita ibiltzea bezalakoa dela dio irakasleak.

Ikastaroan, bestalde, geobiologiari tarte egingo diote. Jakintza arlo horrek bizitzaren eta Lurraren eremu fisikokimikoaren arteko elkarrekintza aztertzen ditu. Gaur egun, arreta handia bereganatzen du eremu elektromagnetikoak, esaten baita gizakiari, dituen gaixotasun batzuk inguruneak sortzen dizkiola. Eztabaida eragiten duten gaiak jorratuko dituzte, besteak beste, wifi sareen eragina. ■



Dive Tarpoon
urpekaritza

Kirol portua, A7 lokala
48992 GETXO (Bizkaia)
Tel / Faxa: 94 4912577
divetarpoon@euskalnet.net
www.divetarpoon.com

Stephen Moran 'Smiley'

«Irlandarrok benetako euskaldunak gara!»

Euskal Herrian laketutako musikari irlandar irribarretsua.

REYES ILINTXETA

Argazkiak: Dani Blanco

Hirugarren diskoa noiz plazaratuko duzue?

Aste honetan bukatu dugu grabaketa. Orain masterizazioa egin behar dugu, ez dakit hemen edo Amerikako Estatu Batuetan, eta irailean aurkezpena egiteko asmoa dugu. Iruñeko Zaldi Zuriaren ostatuan joko dugu ekainaren 14an.

Nolakoa da Hoey & The Mussels taldea?

Lau gara: bi irlandar, neu eta Colm Candon abeslaria, eta Atarrabiako beste bi, Javier Egi-

luz bateria eta Patxi Antón baxua. Guk roc-karen eta folkaren arteko nahasketa egiten dugu. Gitarra akustikoa, eta noizbehinka mandolina eta pedal-stylem bezalako tresnak sartzen ditugu, baina, funtsean, rock talde bat gara. Batzuetan gure musika countryaren antzekoa dela esaten digute. Colmek egiten ditu hitzak, denak ingelesez. Nahiko poetikoa da eta bere puntu filosofikoa ere badu. Ez da erraza ulertzeko. Colmek izugarri lan handia

Iruñean, Arga ondoan bizi da orain 'Smiley'. "Une honetan, udaberrian, paisaiak antza handia du Irlandakoarekin, Ultzamakoak bereziki".



egiten du, baina gero jendeak ez daki zer esaten ari garen eta horrek komunikazioa moztu du neurri batean.

Zer ematen dizu musikak?

Geratzen zaidan denbora libre apurrean taldearekin musika egitea atsegin dut. Gero kontzertuak, diskoak... datoz, baina nik nahi dudana da taldearekin elkartu, jo eta sortu. Hona etorri nintzenean beste talde bat egin genuen. Hiru irlandar, Galesko bat eta hemengo bat, iturgina zena: Cuatro guiris y un fontanero izena jarri genion. Oso bestelako garaiak ziren giroari dagokionez. Orduan jendea kontzertuetara joaten zen eta giro polita zegoen. Guk, adibidez, ez dakit zergatik, izugarrizko harreman ona egin genuen Leitzako herriarekin. Orain hori dena oso zaila da, hasteko zuzenerako ongi prestatuak dauden tokiak oso bakanak direlako. Areto handiez harago oso toki apropos gutxi dago. Giroa ere nabarmen erori da urte hauetan: jende gutxi joaten da kontzertuetara, eta beste modu batez ateratzen da jendea. Etorri nintzenean Iruñeko alde zaharrean beti zeuden lagun koadrilak, edozein astegunetan. Orain basamortua da. Asteburuan, aldez, dena masifikatuta dago. Kalean egoteko zegoen ohitura hori galtzen ari da.

Zu Dublingoa zara.

Dublingoa, hiriburuko semea. Irlandan daude dublandarrak batetik, eta gainerakoak bestetik.

Zer alde dago batzuen eta besteen artean?

Alde handia dago, batez ere hiriburukoak ez direnen ikuspuntutik begiratuta. Mespretxu pixka batez diote hori. Ez dakit zergatik ote den. Nik nire jarreran ez dut deus berezirik ikusten. Doinua bai, baina Belfast, Derry eta

beste eskualdeek ere haien doinu propioa dute. Dublin hirian bertan bada beste bereizketa sakon bat: Liffey ibaiak muga ikusezina marrazten du iparraldeko langile auzoen eta hegoaldeko dirudunen artean. Dena den, sakonduz gero berehala ikusten da denetik dagoela alde bietan. Bereizketa hori dela-eta maiz egiten dira txistek: "Nola esaten zaio bi solairutako etxe polit batean bizi den Dublin iparraldeko bati? Lapurra". Ni hegoaldekoa naiz, baina aldi berean, langile auzo batekoa. Jaio nintzen tokia garai batean herri txiki bat zen, orain hiriak jan du. Aita hango baserri batekoa zen. Duela 40-50 urte Dublingo erdigunea hustu zuten oso utzia eta gainbeheran zegoelako. Horretarako bertako jende pobre eta marjinatua handik aterarazi eta inguruan eraikitako auzo berri batzuetan barreiatu zituzten. Oso modu traketsen egin zuten.

Nolatan etorri zinen Euskal Herrira?

20 bat urte nituela haurrentzako arropa fabrika batean egiten nuen lan. Orduan ingelesa ikastera joandako hemengo talde bat ezagutu nuen. Iruñekoak, Zarauzkoak... Euskaldunak. Pubetan ibiltzen ginen, adiskidetu, gustatu eta gero hona etorri nintzen.

Haiekin?

Haietako neska batekin.

Horrela esanda egun batetik bestera erabaki zenuela dirudi...

Eta hala izan zen. Hori ulertzeko jakin behar da Irlandan badagoela kanpora joateko tradizioa. Ez dugu bitan pentsatzen. Emigratioa oso errotua dago. Hemen ez, beste garai batzuetan bai, baina orain hemen ez. Gosete handia izan zen Irlandan 1845etik 1849ra eta, horren ondorioz, 8 milioi biztanletarik, milioi bat pertsona hil eta beste milioi eta erdiak kanpora joan behar izan zuen. Miseria besterik ez zen eta jendeak bizimodua bilatu beharra zuen. Horrek ez du etenik izan eta oraingo krisi ekonomikoarekin areagotu egin da. Esaten dute gaur egun astero 1.000 pertsonak alde egiten dutela Irlandatik. Australia eta Kanada dira orain emigrante horietako askoren jomugak. Baina jendeak, oro har, ateratzeko ohitura du, urtebeterako edo denbora gutxitarako bada ere. Gure koadrilan hamabi ginen eta Irlandan bi besterik ez ziren gelditu. Bat Greziara, beste bat Alemaniara, bi Estatu Batuetara, Australiara...

Beraz neska euskaldun harekin nenbilela, esan zidanean nazkatuta zegoela eta Euskal Herrira itzuli nahi zuela, nik berehala esan nion "zurekin noa", eta etorri egin ginen.

Nortasun agiria

Stephen Moran, txikitatik "Smiley" lagunentzat, Dublinen jaio zen 1968ko abenduaren 26an. Duela hogeita bi urte Euskal Herrira etorri zen, bihotzak ekarrita. Euskara ikasi eta hemen laketu zen. Musikaria da, gitarra jotzen du Hoey & The Mussels taldean eta grabatu berria dute hirugarren diskoa. Euskalerrira irratiko kolaboratzailea da, country eta folk musikaz hala nola musikariek hitz egiten mikrofonoaren aurrean. Bi umeren aita da eta biegi izen irlandar politik eman dizkiete: mutikoari Fionn, Irlandako mitologiako heroi handia, eta neskeri Alannah, gaelikoz *ene maitea* edo *ene umetxoa*.



Nola hartu zuten zure etxean?

Ongi. Ez zuten festa bat egin, baina arazorik ere ez zen egon. Nire aitaren lagun batek esan zuen hiru astetan bueltan egonen nintzela. Baina hiru aste ez, hiru urte egon nintzen Irlandara joan gabe. Ez nuen batere plan zehatzik. Etorri eta geratu egin nintzen.

Zer tankera hartu zenion Euskal Herriari lehen begi kolpean?

Flipatu nuen. Pentsa: 21 urterekin, uda bukaera, eguzkia, jaiak nonahi... Nire laguna Zarauzkoa zen, eta hango hondartza... Ikaragarria! Geroxeago alde ilunak ere ikusi ditut.

Zeintzuk?

Klaustrofobiko samarra dela. Hau oso txikia da.

Tokia ala gizartea?

Biak.

Eta euskara ikastearena nola izan zen?

Urtebete eskas neramala hasi nintzen ikasten. Hori da nik hemen egin dudak gauzarik garrantzitsuena, emaztea ezagutu eta seme-alabak izateaz gain, noski. AEKñ ikasi nuen, "sektan", kar, kar. Gogoan dut urte batean AEK-k egin zuen kanpainaren kartela: bazen baserri bateko atea, erdi irekia, etxe barrenetik ikusita, eta atez bestaldean zer nolako mundua zabaltzen zen antzematen zen. Hala-ko zerbait izan da niretzat euskara ikastea: jende pila ezagutzea, lagunak egitea, integraztea... Baina horretarako atea ireki egin behar da, afixa horretan bezala.

Orain zu irakasle. Ingelesa irakasten duzu. Hori izan da hemen beti zure lanbidea?

Bai, kenduta uda batez lanean aritu nintzela hemengo lantegi batean Bartzelona futbol klubeko kamisetak egiten. Zailena zen Goikoetxearen izena bizkarrean jartzea, oso luzea zelako. Itzulpenak ere egiten ditut,

Elebidun

"Hemen bada komunitate elebidun handia. Aitari, adibidez, hori oso berezia egiten zaio. Gure haur nagusiak nirekin ingelesez egiten du, eta besteekin euskaraz eta gaztelaniaz. Hori errealitate bat da hemen, baina nire aitarentzat ikaragarria da eta pentsatzen du bere biloba jenio bat dela hiru hizkuntza dakizkielako".

baina gehienbat klaseak ematen ditut. Orain arte akademietan eta azken hamar urteotan CNAI-n (auto-irakaskuntza zentro publikoan) aritu naiz. Berriki, gure akademia propioa zabaldu dugu.

Azken bolada honetan, ingelesa irakaskuntzan gai polemikoa da Nafarroan. Zer uste duzu horretaz?

Ez da berez polemikoa, baina polemiko bihurtu dute. Ingelesaren irakaskuntza tinko bultzatu nahi bada, plangintza zorrotza eta landua behar da eta hemen ez da halakorik. Hemen interes politikoei eta euskararen aurka jo nahiak dute lehentasuna. Gauza asko egiten ari direla erakutsi nahi dute baina baliabideak jarri behar dira horretarako. Gero, gainera, kalean jendea hizkuntzen alde dagoela ikusten duzu. Txarrena da gizarteari esatea ingelesaren eta euskararen artean aukeratu behar duela.

Eta helduok zer moduz? Jende asko lotsatzen da bere ingelesa txarra delakoan eta ez dute hitz egin nahi izaten.

Bai, horrela da, baina aldatzen ari da. Badago konfiantza falta handia. Bitxia da, baina nik behintzat nabari dut Gipuzkoan hobeki egiten dutela ingelesez. Agian itsasoaren aldamenean daudelako. Ez dakit zergatik baina irudipen hori dut.

Irlanda eta Euskal Herriaren arteko nolabaiteko lotura mitifikaturik badela esan daiteke. Zuk ere hori sumatzen duzu?

Bai, batez ere hemendik ikusita. Halere Irlanda Iparraldearekin, Belfastekin komunikazio gehiago dago Dublin edo hegoaldearekin baino, gertatu den guztia erengatik: nazio borroka, hizkuntzaren egoera... Gazte garaian, etorri berritan, banuen lagun bat Ingalaterrakoa zena eta familia galestarra zuena. Nazkatuta zegoen jende guztia niri hurbiltzen zitzaidalako irlandarra nintzelako eta berari kasurik ez.

iRUÑAZARRA
TABERNA · JATEXEA



Merkaderes kalea, 15 · 31001 IRUÑA (Nafarroa)
T 948 22 51 67 · info@irunazarra.org · www.irunazarra.org

CuadraBus

www.cuadrabus.com

☎ 945 890 804 / 670 477 727 · Faxes: 945 892 215
info@cuadrabus.com



Orduan hasi zen esaten bera galestarra zela eta askoz ere hobeki hartzen zuten.

Izateko moduan, bada antzekotasunik?

Aditzen dudanean hemen jendea itxia dela, hotza, beti koadrilatan ibiltzen dela... Nire ustez hori ez da egia. Beste aldarre bat ikusi dut hemen, baina horretarako zuk ere saiatu behar duzu komunikazioa lantzen. Orain berriki aurkeztu duten ikerketa genetiko batek dio jatorrizko benetako irlandarrek hemendik joandako euskaldunak dituztela arbaso. Genetikoki bada zer bait hor.

Egia esan itxuragatik hemengoa izan zintezke.

Horren inguruan proba bat egin zuten Irlandako telebista batean: Bermeora joan ziren, han irudiak grabatu, tabernetako giroa, jendea kantuan... Irlandara itzuli eta irudi horiek Irlandako bihotzeko irlandar peto-peto batzuei erakutsi zizkieten. Horiek ikus-tean berehala hasi ziren esaten: "Hara! Horrek nire lehengusu baten antza du!". Eta era horretakoak. Bitxia da. Irlandarrok benetako euskaldunak gara! Kar, kar. Egia esan, egoera soziopolitikoaz gain badira ere beste parekotasun batzuk: Irlanda tradizionala eta katolikoa da, familia garrantzitsua da hemen bezala, jaizaleak gara biok... Orain zaila egiten zait honetaz hitz egitea, bizitza erdia hemen eman dudalako. Lagunak maiz etortzen dira hona. Eta hasieran nik izan nuen sentsazio bera izaten dute: trago batzuk hartzeraz atera goizaldeko ordu bietan eta goizeko zortzietan etxera itzuli. Hori han ez da ikusten. Dena den, desberdintasun handiena eguraldia da.

AZKEN HITZA

Faltan eta soberan

"Jendea falta da. Hemen egon beharko luketenak eta ez daudenak. Benetako bakea, ez soilik konfliktoari begira, oro har, gizartean. Elkarrekin bizitzeko borondatea. Soberan: intransigentzia. Hemen bada apartheid linguistikoa eta hori soberan dago. Iruñeko Euskalerrria Irratiarekin egiten ari direna, adibidez, bazterketa gogor hori, soberan dago. Politikatik bizi direnak eta hori betirako diru-iturri bihurtu nahi dutenak ere soberan daude".

Eta Irlandako egoera nola ikusten duzu gaur egun?

Oso gogorra. Aita eta familia osoa han daukat. Bi anaia ni baino gazteagoak ditut, biak eraikuntzan aritu dira lanean eta orain lanik ez. Hemen bezala boom bat izan zen eta gero horrek denak eztanda egin zuen.

Eta borroka armatua gainditua dago?

Nik ez dut hori zuzenean bizi Dublinen, gertutik jarraitu bai, baina ez Irlanda Iparraldean bezala. Telebistan ikusten genuen, eta noiz edo noiz lehergailu batek eztanda egin du Dublinen... Borroka latz-latza izan da. Belfast eta Derryko nire lagunak diote zauria ixten ari dela. Han bi komunitate oso desberdin bizi dira elkarrekin. Arazoa konpondu behar da, baina denbora behar da.

Gaelikoa nola dago?

Toki gutxi-gutxi batzuetan mantentzen da bizirik, mendebaldeko bizpahiru tokitan eta hegoaldeko eremu murrizt batean. Dublinen kalean entzutea ez da normala. Orain indartzen ari da pixka batean hezkuntzaren bidez bultzatzeko mugimendua sortu delako. Eta horrekin batera immigrazioak ere eragina izan du: immigranteekin ez nahasteko bertako batzuk eskola hauetara joaten dira.

Askotan joaten zara Irlandara?

Urtean bitan, normalean eguberritan eta udan, baina mundu birtual moduko batean bezala bizi naiz orain: etxean Irlandako irratia entzuten dut, hango telebista ikusi, hango prentsa irakurri, Skyperen bitartez aitarekin egunero hitz egin, Facebooken bidez lagunekin solasean maiz... Orain jada, kasik ez dakit non bizi naizen.

Hara joateko asmorik?

Ez dut ikusten orain neure burua han bizitzen eta asko kostatu zait hori neure buruari aitortzea. Ezin da ezer ziurtatu baina hala uste dut nik. ■





EUSKARA zure aukera

EUSKARA
kolore bizia!



▶ Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

▶ www.alava.net

• Bastida Ikastola •

Ikasle ohiak etorkizuneko hazi

Ekainaren 17an, Bastidan ospatuko da aurtengo Araba Euskaraz jaia. Arabako Errioxako ikastolako arduradunek erabakia dute lema: *Barneratu, barreiatu*. 174 ikasle ari dira, denak D ereduan; Arabako Errioxakoak, Burgosekoak eta Errioxakoak.

JON ARIZKUN



BASTIDA IKASTOLAK UTZIA

Aurtengo inauterietan pirataz jantzi ziren Bastida Ikastolan.

Araba Euskaraz-eko abestian piratak ageri dira eta pertsonaia horixe baliatu zuten otsaileko festa ondo pasatzeko.

ALTXORRA HAIN DA HANDIA / *Ontzian ez dela sartzzen / horregatik gabiltza gu / barneratuz barreiatzen / Zuk lagundu behar gaituzu / belburu eder hau lortzen / ikastolan zein kalean / beti euskaraz mintzatzen*. Horrela ari da Orlando Arreitunandia aurtengo festaren kantaren bertsoetarik batean, eta Bastida Ikastolako zuzendari Ketxu Bedialaunetak adierazi digu haren esanahia: “Euskararen gainean ari gara,

jakina. Lehenengo, guk, euskaldunok barneratu behar dugu euskara. Festaren kantak altxorra aipatzen du, euskara dugu altxor hori, aberastasuna dugu, horren kontzientzia izan behar dugu. Ostean, barreiatzea dagokigu, han eta hemen zabaltzea”. Ez da Arabako ikastolen jaia Bastidan egingo den lehenbiziko aldia. 1989an egin zuten estreinakoz eta harrezkero 2004an eta 2008an.

Barreiatze lanetan aspaldi

Lehenago ere euskara barreiatzeko lanean ari dira Bastida Ikastolan. 1979an sortu zen, bederatzi ikasle zirela, eta 174 ikasle ari dira gaur egun, Haur Hezkuntzatik DBHko 1. eta 2. mailako gela bana barne. B ereduari hasi zuen ibilia ikastolak, garai hartan eremu erdaldunean ohi zenez. “Baina orduko irakasleek euskara maila hobea nahi zuten ikasleentzat eta B eredu indartu bat jarri zuten abian lehenengo, eta ondoren, 1996-1997an euskarazko eredu. Haurrak euskaraz bizitzea lortu nahi bazen, beharrezkoa zen ikastolako jarduera aldatzea eta euskara hutsean aritzea”. Ume haien euskal eredu eta eremu bakarra ikastola zenez, egokiago zen ikastetxean D eredu abiatzea. Ereduak eredu, tupust egin ohi du ezagutzak eta erabilerak Bastidan, gainerako euskal herrietan bezala: “Ikasleek maila hobea dute orain. Erabilera formalaz ari gara beti, gelan lantzen diren ikasgaiak ondo bereganatzen dituzte, baina gelatik kanpoko euskarari dagokionean, erreferentziarik ez dute, eredurik ez. Erabilera ez-formala egin behar denean zailago da. Ni, esaterako, ondarrutarra naiz, eta egunero ikusten dut ezberdintasuna”.

Bastida bertakoak ez ezik, Errioxako Haro eta Casalarreina, eta Burgoseko Miranda Ebroko neska-mutilak ari dira ikastolan

Erabilera bizi

Artean ikastolan B eredu indarrean zegoela, bertako irakasle taldeak bat egin zuten erabilerari eragiteko asmoarekin, Euskaraz Bizi proiektuarekin, alegia. Bedialaunetaren aburuz, “Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. maila artean ondo funtzionatzen du proiektuak. Ikasleak zenbat eta nagusiago, zailago da proiektuko Argitxo pertsonaia-ekin eta haren ipuinekin bat egitea, eta bestelako bideak asmatu behar izaten ditugu orduan, dela inauteri inguruan egiten dugun kanpaina, dela teknologia berriak erabiliz. Hortik emaitza hobekak lortzen ditugu”.

Beste adar batetik ere ari dira emaitzak jasotzen, baina ez ikastolan, herrian ezpada: “Ikasle ohiak dira laguntzailerik onenak. Lau ikasle ohi ditugu irakasle eta bertan dituzte seme-alabak ere. Nik uste hortik datorrela euskararen etorkizuna Bastidan, ikastolako ikasleen umeetatik. Etxean ere euskaraz egiten dute batzuek”. Transmisio naturala jokoan da Bastidan. Pentsaezina, duela zenbait urte herrian. “Nahikoa duzu tabernara joan euskaraz entzuteko. Hantxe izango dituzu ikasle ohiak, euskaraz hitz egiteko zailtasun handirik gabe. Jaiegun, astebu-




Torre de Oña, norberaren izaerari eustearen balioa. Jatorrizkoa

Torre de Oña Arabar Errioxako eremurik pribilegiatuenean sortutakoa da. Bere lursailik onenean, non bere mahastiek aparteko lurralde baten esentzia eskaintzen baitigute: bere-berea, berriztatzailea eta gaur eguneko. Besterik ez den bezalakoa.

TORRE DE OÑA

www.torredeña.com

Jarrai gaitzazu:  



Ikasle ohiak ikastolan

Maria Amurrio Berroeta (Barakaldo, 1978) bastidarra da, eta ikastolako administrari lanean ari da. Gurutzetako ospitalean jaio arren, Arabako Errioxaldeko herrian da jaiotzatik. Bizkaiko Arratiakoa du ama, Bastidakoa aita. Ikastolaren sorreran parte hartu zuen amak eta han egin zituen lehen urratsak alabak. “Hemen ikasi nuen 8. maila arte. Ondoren, Lapuebla de Labarcako Assa Ikastolan egin nituen batxiler ikasketak eta UBI, eta Ekonomia ikasketak egin nituen gero Bilbon Sarrikon, euskaraz. Hiru urte irakasle lanean jardun nuen Gasteizen, eta Bastida Ikastolan ari naiz, duela bost urtetik hona, administrazioan”.

Maria Amurriok etxetik ekarri zuen euskaraz, sentiberatasun faltarik ez du. Barrutik bizi du hizkuntzaren egoera. “Nire iritziz, ikastolan, gutxiago hitz egiten genuen euskaraz nire garaian. Gogoratzen naiz, esate baterako, Barriako barnetegira joan ginela behin, ikastolatik, euskaraz erabiltzeko programan. Ez genuen euskaraz hitz egin, ordea, eta andereñoak ez-nahikoa jarri zigun euskaraz. Nire lehen suspentsioa izan zen. Orduan ez nuen ulertu andereñoaren jarrera. Orain bai”.

Ikastolako ikasle ohi, bertako langile, eta ama ere bada Amurrio. Alderdi asko ikastolaren ertzak ezagutu nahi dituenarentzat. Gurasoen giroaren berri ere zuzen-

zuzenetik daki. “Hizkuntza proiektuaren barruan hilero esku-orriak banatzen ditu ikastolak gurasoen artean, esaldi errazak erakusteko, urte sasoiaren araberrak”. Euskararen aldeko jarrera lantzeko baliagarri zaie hori, kontzientziari eragiteko, aise ez bada ere. “Guraso askok errazago zaielako bidaltzen dute beren umea gure ikastolara. Eman dezagun, Harokoak. Gurasoak, euskaldunak, bertan ari direnak lanean. Ikastolak eskaintzen dituen zerbitzuak ikusi –autobusa, jantokia, hizkuntza proiektu [hirueleduna], ikasleentzako zaintza programa...–, eta hona bidaltzen dute haurra”. Euskararekiko kontzientziarik ez, askotan, eta horretan lanak, nahiz ez den gure lagunaren kasua.

Maria Amurriok umeak ditu poz, haien ongizatea, oraina eta etorkizuna. “Ikastolaren alde egiten dudana lana umeari onuragarri zaiola ikusteak bete egiten nau. Araba Euskaraz jaia dela-eta, elastikoak saltzera edo dena delakora joan beharra dagoenean ere, badakizu umearen onura nahi duzula, hark material hobea, aukera handiagoa izan dezan saiatzen ari zarela, dela gela bat egokia izateko, dela beste ezertarako”. Txikitandik jaso duena, amaren aldetik jaso, ondorengoen esku jartzen ari da Maria Amurrio Berroeta ikastolaren administrari lanetik.

ru eta udan, berriz, euskaldun mordoa biltzen da herrira. 1.200 bizilagun izatetik 7.000 lagun biltzera igarotzen da Bastida”. Eta, bistan denez, euskaldunak dira horietatik asko.

2006-2007an, ikastola berria

Eraikin berria jaso zuen Bastidako Ikastolak duela sei urte. Hil ala biziko erabakia, Bedi-launeta zuzendariaren esanetan, ikasleak estu-estu eginda ari baitziren eraikin zaharrean, matrikulazio datuak eskuan zituzten, eta non edo nondik lehertu beharra zegoen. Orduan egin zuten diru inbertsio handiari aurre egiteko ere baliatuko dute, besteak beste, ekaineko festa nagusian bilduko duten dirua. Zorrak kitatzea dute helburuetarik bat,

ez bakarria ordea. “Baliabideak ere behar ditugu, proiektua aurrera eramateko. Bestalde, herrian eta inguruan ikastola mugimendua indartu nahiko genuke, proiektua zabalteko, sendotzeko”. Bastidan bertan ere bada premia, eta ikastolarekiko eta euskararekiko atxikimendua landu nahiko lukete hurrekoen artean... Izan ere, hiriburu, hiri eta herri handietako ikastetxeetan ez bezala, hainbat lekutako neska-mutilak biltzen dira herri txikieta eskoletan. Bastidakoan, kasu.

Egun, Bastida bertakoak ez ezik, Errioxako Haro eta Casalarreina, eta Burgoseko Miranda Ebroko neska-mutilak ari dira ikastolan, denak euskaraz ari. “Euskaraz ari gara, euskaraz irakasten ditugu irakasgaiak, gaztelania eta inge-

Kontseju jatetxea



- Eguneko menuak
- Ospakizunak
- Asteburuko menu bereziak
- Plater konbinatuak

© 943 683 327 / 656 710 073

Hirigunea, 1 · Elduain (Gipuzkoa)

Azpea

NAVARRA
Denominación de Origen

ARDO EKOLOGIKOAK

Lumbier (Nafarroa)

www.bodegasazpea.com



Bastida Ikastolako haurrak

Arabakoak: %36,90
 Bastida: %34,52
 Beste herriak: %2,38

Errioxakoak: %57,73
 Haro: %32,73
 Briones: %16,66
 Casalarreina: %8,33

Burgosekoak:
 Miranda Ebro: %5,35

Ikasleen familiak

Euskal Herrikoak: %61,03, euskara dakitenak %14

Bastidan euskara

Euskaldunak %27,41, ia euskaldunak %20,18 eta erdaldunak %52,40.

Etxean euskara

Ikasleen %90ak etxean gaztelaniaz, %8ak euskaraz edo ele biz.

lesa izan ezik, jakina. Guk euskara eta gaztelania, biak maila berean izan daitezela nahiko genuke, ez bata besteari nagusitzea. Gela barruan egiten dugun lanaz gainera, gelatik kanpo ere saiatzen gara, pilota-eskola eta multi-kirolaren bitartez”. Eskolaz kanpoko ekintzetan, Gorputz Hezkuntzako irakaslea dute begirale eta arduradun. “Horrek asko laguntzen du, euskararekiko sentsibilitatea landu beharrik ez dago harekin, eta ikasleek ere badakite euskaraz ariko direla han”.

Datuen argitan, gurasoen %14 euskaldun dira, eta horretan ere bada zer landurik. Guraso askok ekarri ohi duen kezka, alegia. “Askotan entzun izan dugu: ‘Ezin diot gure umeari lagundu, euskaraz ez dakit-eta’. Baina guraso horrek berak ingelesez ere ez daki, eta hori ez du problema, ez zaio iruditzen eragozpena. Euskararen kasuan, ostera, bai. Kezka hori guraso askoren burutik ezin kendu izaten dugu. Gainera, maila jakin batera iritsiz gero, ez euskaraz, ez gaztelaniaz, ez ingelesez, umeek gehiago dakite gurasoek baino eta, beraz, nahita ere ezin lagundu. Gure helburua da umea bera arduratzea ikasi behar dituen gaiez, gero gurasoei azaltzeko. Horretan ahalegintzen gara”.

**IBAIONDO** *Upeltegiak*

Ardo zainketaren zerbitzura

Diputazioaren etorbidea, 55 | 01330 Bastida (Araba)

Upeltegiak: ☎ 945331140 / Bulegoak: ☎ 944354678/28

comercial@bodegasibaiondo.com

www.bodegasibaiondo.com

**JATORRENA HOTELA**

Arabar Errioxaren bihotzean

Florida 10 Bastida 01330 (Araba) · ☎ 945 331 050 · jatorrena@gmail.com



Baldid Anant

EUSKARA TEKNIKARIA

Euskara hedatzeko modu xebreak

B

erriki irakurritakoa da hau: “Beriariak lankidetzaren hitzarmena sinatuko dute Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saileko Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak eta Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentuko Euskarabidea Euskararen Nafar Institutuak. Hitzarmen honen bidez, bi erakunde sinatzaileen arteko lankidetzaren bultzatuko da euskarari dagozkion alderdi jakin batzuetan”.

Aitor dezadan, xuabe samar esanda, nahikoa “harrigarria” iruditu zitzaidala gure bi erakundeon arteko lankidetzaren euskaltzalea. Ez baitu haien praktikak itxaropen handirik eragiten. Nire aurreiritziak lagun, iragarkian gakoak bilatzen hasi nintzen. Lehendabizikoa berehala zetorren: “Lankidetzaren hau tekniko da”. Jakina, akordio politikoaren usainik ez. Bigarrena, aurreraxeago: “Bikoiztasunak eta gastuak saihesteko”. Gero eta hobeki ulertzen hasi nintzen. Lankidetzaren ere, jakina, gastuak murrizte aldera. Eta geroxeago hirugarren gakoak aurkitu nuen, hitzarmenaren esparruen zerrendan honaxekoa agertzen baitzen: “Euskara nazioartean hedatzeko programak eta euskarazko irakurleak atzerriko unibertsitateetan”.

Hori ikusi eta segituan pentsatu nuen: “Horrek izan behar dik”, horrek bultzatu



Kendu euskara hemendik,

aizu, eta eraman

nazioartera, eraman

atzerriara, ahalik eta

urrutien. Hondakin

toxikoekin

egiten den

modura



ditu nafar agintariak –eta akaso besteak ere bai?– lankidetzara. Kendu euskara hemendik, aizu, eta eraman nazioartera, eraman atzerriara, ahalik eta urrutien. Hondakin toxikoekin egiten den modura. Eraman dezagun euskara Alemaniara (Volkswageneko lagunak, akaso, beharko dute euskaldunen bat), edo AEBetara, edo Surinamera, edo Indiara, edo Ugandara. Nafar agintarien fantasietan akaso planteatu liteke euskalkiak eta herrietako hizkerak, unitate gisa, garraia daitezkeela. Burundako euskara Asiara, Baztangoa Argentinara... Eta batua, noski. Lehentasunik izatekotan, horrexek izanen luke. Eraman euskara batua urrutira, mesedez, eta hedatu nazioartean, puska txiki-txikitan ahal bada, trukean deus eskatu gabe gainera.

Hitzarmenaren funtsa ulertu nuela uste dut, beraz, baina zalantza bat gelditu zitzaidan hala ere: “Euskarazko irakurleak atzerriko unibertsitateetan” dioenean, zer esan nahi du? Atzerriko unibertsitateetan euskaraz irakurtzen duten lagunak bilatuko dituztela, edo, aitzitik, hemengo unibertsitateetan euskaraz irakurtzeko joera arriskutsu eta ia-delituzkoa duten ikasleak –eta irakasleak?– atzerriko unibertsitateetan hedatu eta sakabanatuko dituztela? ■



HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



gabe ez daukagu bizitzerik. Aste-oro jasotzen genuen lansaria gutunazalean. Sobrea kobratzea deitzen genion. Nomina ere bertan. Etxera egin eta egin beharreko ordainketarakoak bereizi eta gelditzen zitzaiguna genuen aztergai, zer lehenesten genuen gastatzeko xede. Zorra ez egitea helburu, patrikak genituen kutxazain armairu banku. Enpresa handiagotetan, hilaren hamar aldera hartzen genuen zati bat aurrerapen gisa, hilaren hondarrean osoa ematen zigitelarik. Urteak eman genituen horrela eta sistemak funtzionatzen zigun. Piskanaka bankuak hasi ziren beren zerbitzuak eskaintzen enpresei eta era

Bankurik

guztietako hornitzailei. Armairuak eta patrikak desagertu ziren. Bankuetara jo behar izan genuen lansariak kobratzeko. Enpresarekiko harremana bankuak ordezkatu zuen. Eta zernahirako kredituak eskaintzen hasi zitzaizkigun lansaria berme. Beren zepoan harrapatu gintuzten, zorra zorraren gainean hasi ginen metatzen, behar ez genituenak ere erosituz, gure administrazioa euren eskuetan utzita, dirua bankuko agiriko zenbakitan urtzen zigitelarik. Orain, ez genuena gastatu dugulako gaitzitzen gaituzte, errealitatean gastatu ez duguna ordaintzen ari garen bitarte honetan, bankuek xahutu dutena gure zor. ■



Alaitz Vives

KAZETARIA

Zenbat pitilin!

Hedabideen kontsumitzaile garen heinean, haiek merkaturatzen dituzten hainbat produkturi erreparatuta, sarriegi genero bakarreko gizartean gaudela dirudi. Horren aurrean “Zenbat pitilin!” nahi baino gehiagotan ateratzen zaidan esaldia da. Zaharrago direnek aurrera egin dugula esango dute eta ezin ezetzik esan, baina horrek ez du errealitatea ezkututzen, deigarria baita, nola irudika litekeen gizartea, erdia kanpoan lagata. Maria Gonzalez Gorosarri, kazetari eta ikertzaileak bere blogean gai honi heltzen dio (albistetan.blogspot.com). Berak jasotako iturrietatik, nazioarteko albisteak aztertu eta honatx datu batzuk: albisteetako protagonisten %76 gizona dira, andreak ez dira albisteen interpretazioan lagunduko duten ahots aditu gisa agertzen eta interes orokorreko albisteek ere, ez dute emakumeen ikuspeirik ematen.

Emakumeak lan, unibertsitate eta ikerketa merkatuetan aurrera egin ahala, egoera hau modu “naturalean” konpon zitekeela uste izan dugu askok, baina ondorio gisa Gorosarri bere blogean jasotako ikerketa baten arabera, ezer egin ezean, albisteen genero parekotasuna ez da hurrengo 30-40 urteetan lortuko.

Hedabide publikoei begiratuta, 30 urtetan



DANI BLANCO

EiTBk zuzendari gizona gizona baino ez ditu izan eta antzerakoa gertatzen da irratietan. Gehiegizkotasunak (gizona gizona) edo gabeziak (emakume gizona) badu eragina erakunde horietan ekoizten diren produktuetan. Adibide bat baino ez bada ere, azken asteetan ETB2n emisioan dagoen dokumental saio bati erreparatuz, ez ei dago Trantsizioko urteetan gertatutakoa argitzen lagunduko digun andrazkorik.

Duela aste batzuk EAEko egunkarietako zuzendariak batu ziren mahai inguru batean irudikatutako argazkiaren aurrean ere, testu honen izenburua errepika genezakeen (bi zuzendari falta ziren, bai, haiek ere gizona gizona). Errealitate kontraesankorra da nolahi ere, medioetako erredakzioetan emakumezkoak baitira nagusi, baina kopuruari erreparatuta soilik.

Egunerokotasunean, ia-ia hiritar izateari utzi eta kontsumitzaile huts bihurtu garen honetan, kontsumitzaile aktibo izateak ematen digun botereaz baliu gaitzake, generoa edozein dela ere. Internet sarea baliabide handia da horretarako. “Kontsumitzen dut eta beraz, banaiz” leinari eutsi, gure egin eta horrek ematen digun boterea baliatuz, produktu ekoizleei “zenbat pitilin!” “pitilin gehiegi” direla adierazi geniezaieke. ■



« Errealitate kontraesankorra da nolahi ere, medioetako erredakzioetan emakumezkoak baitira nagusi, baina kopuruari erreparatuta soilik »

TXANDAN

Joxerra Garzia



Lehendik ere bagenekien: esanak esan, unibertsitatean irakaskuntza da gutxienekoa.

Eskolak ganoraz ematen tematzen den gajo/gizajoak txartel guztiak ditu azken putz geratzeko, hobe ikerketan xahutzea indarrak. Puntuak irabazteko baizik balio ez duten ikerketak egitea komeni da, noski, ikerketak konponduko duen arazoa norberak propio asmatuta, benetako arazoketarako ikerketa zaildu eta ikerlea zikindu besterik ez baitute egiten. Ikerketa otzarak behar dira, esanezkoak.

Orain, berriz, gure nagusiek maskarak erantzi eta

Irakasle putz

muturrera bota digute mehatxua. Aurretzean, ikerketan behar bezala saiitzen ez den irakasleak egundoko zigorra izanongo du, izugarrizko kondena: eskolak eman beharko ditu.

Estimatzekoa da hain argi mintzatu izana, hartara lasai egin ahal izango baitugu barre irakaskuntzaren bikaintasuna aipatzen diguten aldiro.

Puntu biltzaile otzan baino, nolahi ere, nahiago azken putz, azken putz baino ere gutxiago izatera kondenatuen –ikasleen– esker ona bezalako altxorrik ez baitago irakasle batentzat. ■



erdiko kaira

ElectroClass film dokumentala

Telebistatik, telebistarako, telebistaren kontra

María Ruido diziplina anitzeko artistak *Electro Class* film dokumentala estreinatu zuen joan den azaroan. ETBren artxiboko materiala oinarri hartuta eta Bilbo ikerketa kasutzat, kapitalismo industrialetik kapitalismo kognitibora egindako jauzia erakusten du, lan interesgarri bezain esperimentalean.

IRATXE ESNAOLA

BERTOLD BRECHT idazle alemaniarrak izkiriaturako poema baten izenburua da *Bilbao Song*. Poemari bertsio ugari egin zaizkio Kurt Weill konpositoreak 1929. urtean *Happy End* antzerki obrarako musikatuzuenetik. *ElectroClass* lanaren amaieran entzuten dugun kantaren bertsioa Lotte Lenyarena da. Garai batetik hona Bilbo nola aldatu den dio kantariak. Nola berriro dutenetik leku hits bihurtu duten Bilbo. Ez da zehaztu ahal izan Brecht benetan Bilbon izan zenik, baina beharrik ere ez, hiriak etengabe aldatzen direla ziurtatzeko. Bilboren eraldaketan ipini du arreta, hain zuzen, Maria Ruidok. 1980ko hamarkadatik hona, kapitalismoaren paradigma aldatzarekin batera, hiria nola eraldatu den jaso nahi izan du, batez ere, lanari eta bere errepresentazioari dagokionean. Bilboko Consonni produktoreak ekotzitako lana zazpi minutuko zazpi piezaz osatu du ETBren artxiboko irudiak erabiliz eta bestelako ikus-entzunezko materialak txertatuz. Bartzelonako Unibertsitateko Diseinu Departamentuko irakasle, ikertzaile eta kultur sortzaile da Maria Ruido eta bigarren lan dokumentala du hau. Aurreko lana, *Lo que no puede ser visto debe ser mostrado* (Ikusi ezin dena erakutsi egin behar da), trantsizioaren memoriaren bertsio ofizia-



lari kontra egiten dion obra da, zinema militanteko materiala baliatuz josia.

Ikus-entzunezkoetan espezializatu gabeko ikuslea narrazio molde jakin bateko errepor-tajeetara ohitu dute. Maria Ruidoren analisiak ikus-entzunezko lengoia konbentzionala erabili gabe narratu nahi du eta diskurtso hegemonikoa azpikoz gora jarri. ETB3k martxoaren 22an lehen aldiz *ElectroClass* emititu zuenean, batek baino gehiagok ezustez, ohi dugun baino arreta gehiago jarri beharraren ezinegonaz begiratuko zuen dokumentua. Irakurketa sinplista batek *zail* izendatuko lukeen lan baten aurrean geunden. Maria Ruidok ideia hori hasieratik baztertu digu, ordea, publiko orokorarentzat ezegokia den lanik ez dagoela gogoraraziz. “Aspaldiko auzia da.

Zer neurritan dira eskuragarri edozein ikuslerentzat diskurtso normatiboetatik at dauden eta konplexu izendatzen diren zenbait diskurtso. Ez dezagun ikuspuntu maternalista balia. Erabiltzaileek guk uste baino askoz hobeto dakite irudiak irakurtzen”. Gure begiak zertara ohituak dauzkagun, hura egiten zaigu erraz. Erakutsi ohi ez digutena, berriz, zail. Filmak erreferentzia mordoa du: pelikula zatiak, testuak, musika piezak, denak nahasian, dokumentalek ohituak gauzkatzen narrazio kanonetik ihesi. Gidaritza lanak egiten Pier Paolo Pasolini ipini du eta hura laguntzen off-eko ahots anonimo ugari, ETBtik hartutako materialen ondoan. Diskurtso mediatikoak hartu, erabili eta esanahi berriz hornitzeak estrategia politiko bezala duen potentziala azpimarratu du María Ruidok, eta aldi berean, muntaia adierazpen kritikorako tresna ezinbestekotzat hartu. “Ez da telebistarako dokumentala” esan digu definizio bat proposatuz, “telebistako materialarekin egindako pelikula da, telebistatik, telebistarako eta telebistaren kontra”.



Zertan zara Bilbo

80ko hamarkadan ekonomia arloan eman ziren doitze-neurri mingarriek lan eta bizi baldintzen okerragotzea ekarri zuten Bilbora, baina ondorioak estrapola daitezke Espainiako Estatuko hirietara ere. Politikariek ekonomi politikaren eskuetan jarri zituzten “lehiakorrak” ez ziren industria moldeak eta enpresak, albo batera utzi behar zirela argudiatuz, eta neurri haiekin batera, egungo jendartea diseinatu zuten: langileek klase sentimendurik ez dute eta masaren izaera kontsumitzailearena da. “Egun bizi dugun egoerak 80-90eko hamarkadetako globalizazio ekonomikoan du jatorria, ekonomiaren finantziarizazioan, eremu publikoaren privatizazioan, zentroen eta auzoen gentrifikazioan”, nabarmendu du Ruidok. Adibide ugari badira, baina Euskalduna ontziolaren kasua baliatzen du hau guztia ikusarazteko. Eta paralelismoak egiteko. Ontziolaren itxiera traumatikoa deskribatzen du ahots batek eta orduko langileen defentsaz diharduen bitartean, Kukutza defendatzeko erresistentzia ikusten dugu. Aldi berean, dis-

ETBren artxibotik abiatu da María Ruidok filma egiteko. Bilboren hiri-eredua auzitan jartzen du, besteak beste, Kukutzaren eraisketako irudiak erabiliz.

kurtso ofizialaren aurka, ontziolak errentagariak zirela dioen ahotsa txertatzen du, itxieraren benetako arrazoa iradokiz: hiriko gune pribilegiatuen jabetza. Horrek guztiak Bilbora ko hautatu duten hiri modelora garamatza. Kamerak Kukutza eraitsiko duen garabia jarraitzen du Errekaldara bidean. Hura amiltzen ikusten dugu. Jarraian Iberdrolaren dorre berria altxatzen.

Gatazka ezagunoz gain, azken urteetako beste borroka sozialen falta nabari da. ETBko materialaz ari gara, hainbat errealitatearen irudiak erregistratu gabe dauzkan medioaz. Baina irudiaren ifrentzua erakusten digu María Ruidok. “*ElectroClasse*ko benetako protagonista kamera aurrean ez agertzea da. Ez dut uste albistegietan ez azaltzea ez existitzea denik. Errepresentazio hegemonikoaren sisteman lekurik ez duzula esan nahi du, besterik ez. Erreportajearen amaieran langile klasearen irudiak difuminatzen doaz eta mamu bihurtzen, itzal. Baina amaierak ez du errenuntzia adierazten, katarsia baizik. Mamuok ekintzarako gaitasun handia dugu eta agentzia politikoa.



Eszena hegemonikotik at edo bere arrakaletan eragin dezakegu. Azken horiek erresistentzia barrutik egitea ahalbidetzen digute”.

Medioen boterea eta indarkeria

Etorkizuneko dokumental batean gaurko arpilatzeak adierazi beharko balitu, filmean egun kalean ematen ari diren eztabaidak gordeko lituzke Ruidok, “zorraren jatorria, osasuna eta hezkuntza publikoa pribatizatzeke eraso”. Neoliberalismoaren merkatu globaletik aldentu eta egiteko modu berriak badaudela erreklamatzeko du: “Badira ekonomia jardun honekiko kritikoak diren joera ugari, arazorik gabe aplika ahal daitezkeenak. Baina botere publikoetatik entzungor egiten zaie. Beharrezkoa da une hauen larritasunari eutsi eta arazook gorpuztuko dituzten errepresentazio kritikoak sortzea”.

Medioen erabilpen manipulatuaz ere jardun da *ElectroClass*en, baita emisioen errebisio eta kontrolaz ere. Silvio Berlusconi Josu Ortuondo zuzendari zela EITBrekin sinatu zuen lankidetzaren hitzarmenak ilustratzen digu telebista eredu berriarekiko atxiki-

mendua gurean. Kontrastean, Martxelo Otamendiri egindako elkarrizketa txertatzen du, prentsa ez hegemonikoen bizi-raupena eta ekiteko askatasuna zertan den ilustratuz. Lan munduko indarkeriaz ere badihardu, beren buruaz beste egindako hainbat langileren heriotzetan enpresek duten ardura iradokiz. Ikusezintasuna da, beharbada, indarkeria gordeena. Emakumeen presentziarik apenas dagoen, une historiko edo erabakimen handiko uneei dago-kienez, ETBko iruditegitik ateratako pasarteetan. Hari narratiboa markatzerakoan gabezia izan dela iruditu zait eta

halaxe berresten du Ruidok: “Gabezia adierazgarria eta egiaz mingarria da. Emakumeak ez dira asko irteten komunikabideetan, ez urte haietan, ezta gaurko egunean ere. Gainera, kasu gehienetan, begirada patriarkalaren objektu bezala agertzen dira, edo desio heteronormatiboaren objektutzat. Berez, azken 10-15 urteotan gauzak ez dira hainbeste aldatu, estereotipo tradizionalak itzuli, eta are, indartu egin dira”.

ETAren behin betiko armak uztearen komunikatuaren irakurketarekin amaitzen da *ElectroClass*. Edizio lanetan ari zirela agertu zen komunikatua eta muntaiaren gidoia aldarazi zela adierazi digu zuzendariak. “Lanak ez du indarkeriaren gaia zuzenean jorratzen, baina bai zeharka. Ez ETAren indarkeria bakarrik, baizik estatuaren indarkeria estrukturala. Ziurrenik, 60ko eta 70eko hamarkadetan borroka armatua ulertzen zen moduak ez du zentzurik gaur. Egungo erronka indarkeria estrukturalari aurre egiten asmatzea da, ahultzen eta bortxatzen gaituzten estatuari erresistentzia egitea”. ■





EUREKAko Simulagailuetan dibertsioa ziurtatuta duzu!

- I FORMULArekin.
- MAX FLIGHT. Hegazkin simulagailuarekin.
- ORION izarretako ontzi interaktiboarekin.
- Eta gure MR1 eta MR2 errusiar mendiko simulagailuetan.

Leku kopuru mugatua.



eureka!
zientzia
museoa



gizarte
kutxa

DONOSTIA / ☎ 943 012 478 / Informazio gehiago: www.eurekamuseoa.es

Xiberotarrak

Etxean profetak

Lehen haziak 2001eko *Etxahun Iruri* pastorala emateaz batera erein ziren, baina esan daiteke Xiberotarrak, egun Basabürüko hamaika kantarik osatzen duten taldea, 2004an Irurik eta Zalgizek maskaradak antolatu ostean abiatu zela “ofizialki”. 2006an hasi ziren grabazioak egiten, eta aurten argitaratu dute, azkenik, *Zotükatzez batx-batxa* diskoa, lan bikaina bere sinpletasunean.

UNAI BREA

Argazkiak: Christophe de Prada

SOHÛTAN ELKARTU GARA Felix Aguer (Zalgize, 1978), Jean Etchart (Paris, 1955) eta JohaÑe Etchebarnerekin (Atharratze, 1981). Etcharten dendan, hain justu. Megafoniatik etengabe entzuten da, hasi, bukatu eta berriz hasi, *Zotükatzez batx-batxa*, Zuberoan ustekabeko arrakasta izaten ari den diskoa: 2.500 kopia saldurik, 13.000 biztanle inguru duen probintzian. Beste ehunka batzuk Euskal Herriko gainerako lurraldeetan eta Biarnon.

Aguer eta Etchebarne txorrotzak ziren 2004an Iruri-Zalgizek eman maskaradetan. Bazuten, eta oraindik dute, ibilbide oparoa bikote gisa, zuberotar kanta tradizionalaren eremuan beti ere. Aguerrek azaldu digu nola

hasi ziren orduan kantaldi zenbait ematen, maskaradetan aritutako beste zenbait kiderekin batera.

2005erako izena ere bazuen taldeak: Xiberotarrak. Jean Etcharti bururatu zitzaion, bere aurreko taldearen molde beretik joz, Altzükütarrak ospetsua baitzen hura. “Izen aisa bat nongoak garen ezagutarazteko”, justifikatzen du. Etchart da gazte mailan kokatzen ez den taldeko kide bakarra, eta musika munduan eskarmentudunena. Abizenaren frantses grafiak nahastuko zuen irakurlea agian, baina argitu dezagun Niko Etxarten anaia dela Jean, harekin eta Jean Etchegoyhen lehengusuarekin batera 70eko hamarkadan



Ezkerretik eskuinera, JohaÑe Etchebarne, Felix Aguer eta Jean Etchart.

Odol Berria sortu zutenetako beraz. Euskarazko rockaren aitzindarietako. Altzükütarrak-ek diskografia oparoko aire gehienak hark konposatuak dira, eta antzeko protagonismoa ukan du Xiberotarrak-en lehenbiziko lan honetan: berak sortuak dira hamabost kantuetatik hamar, baita zenbait hitz ere. “Etengabe aritzen naiz kantu sortzen”, esan digu.

Hamaika aldiz azpimarratu digu Etchartek Xiberotarrak ez dela “Jean Etchart taldea”, bera beste bat baizik ez dela. Horren froga litzateke *Zotükatze batx-batxa* ez dela suertatu berak nahi bezain rockeroa. Kasu askotan, bozaz hautatu zuten zein kantu ezarri eta zein ez. Ukaezina, bestalde, azken emaitzan eragin handia ukan duela Etchartek; beragatik ez balitz, askoz lan tradizionalagoa argitaratuko zuketean. “Erran behar da gure taldean gazteenak zaharrak direla”, diosku; erran nahi baita inongo musika tresnarik gabe aritzearen aldekoak zirela, hasiera batean, gazte-zahar horiek.

Sinpletasunaren alde

Lan egiteko era demokratiko horren emaitza doinu tradizionalak eta berritzaileagoak uztartzen dituen disko freskoa da, taldeko kideen gustukoa, denek zerbait aldatuko luketen arren. *A capelazko* abestiek pisua badute –sei dira guztira–, eta tresnak, daudenean, ez dira gehiegi nabarmentzen. Sinpletasuna da *Zotükatze batx-batxa*-ren ezaugarri behinenetako bat, eta hala aitortzen dute gure hiru mintzakideek. Ez bedi ulertu hori txarra denik, kontrako baizik. Izan ere, sinpletasunaren aldarrari sutua egin du Etchartek.

“Anaia Nikok ‘hiru akordeen erregea’ deitzen dit. Musika folklorikoetan, zaharretan, beti hiru akorde dira, Do-Fa-Sol, edo Re-Mi-La”. Folklorearen iturritik edaten baitu Etchartek, blues-rock zale amorratua izana-



ALLANDE ETCHART

Jean Etchart, taldearen kantaldi batean. Musika munduan kasik 40 urteko ibilbidea du egina Etchartek.

gatik. “Orain irratian entzuten ditudan kantu asko oso konplikatua dira, eta uste dut jendei sinpletasuna gustatzen zaiela, hitzetan ere bai”. Horri dagokionez, Zuberoako ohiko gaietatik ez da gehiegi aldentzen Xiberotarrak-en lehen diska hau. Etchart eta Aguerren artean eman digute zerrenda: “Herria, bestak, amodioa, euskara, usantzak...”.

Sekretua ahotsak dira

Betiko gaiez hobeto ala traketsago idatz daiteke ordea; zentzu horretan, azpimarratzekoa Itxaro Bordak *Love song* kanturako eskribitutako poema bikaina. Musika ere disko osoko ederrera duenez ale horrek, emaitza izugarri ona da. Sinplea izanda. Baina ez zaitzala “sinple” hitzak tronparazi: gitarra batekin jotzeko bezain erraza da abes- teko zaila *Love song*, eta beste hainbeste esan daiteke diskoko kantu gehienei buruz. Ezeren gaintetik, ahots pribilegiatu zenbait elkar- tzearen emaitza da *Zotükatze batx-batxa*. Xiberotarrak izena daukan talde batengandik espero zitekeena, bestalde.

Aitzitik, espero zitezkeen beste gauza batzuk ez dituzte egin. Esaterako, ez du talde osoak kantu guztietan kantatzen. Binaka, hiruak, bosnakako taldetxoetan eman dituzte abesti gehienak, gizon eta emazteen ahotsak uztarturik, eta uste dute hori date- keela arrakastaren gakoetako, estilo nahas- ketarekin batera. “Nahi genuen hautsi, kan- biatu... Uste dugu jendeentzat hobe dela, ez baitute beti ber gauza entzuten”, diote. Zuberoako karriketan jaso ahal izan ditugun iritziek bat egiten dute ideia horrekin. Sei urte igaro dira Jean Etcharten etxean bertan grabatzen hasi zirenetik –batx-batx, zuberotarrez, emeki- emeki da–, baina merezi izan du itxarotea. ■



Atxurra Hotela

Arronategi auzoa z/g
Bermeo (Bizkaia)
Tel. 944 654 404
www.hotelatxurra.com

Hondarribiko Itsas Etxea

Kulturaren agertoki berria

Hondarribian (Gipuzkoa) iaz amaitu zuten Itsas Etxea Auditoriumaren eraikuntza. Lehen kale animazioetan ageri zen kulturak bere gunea du, eraikin berria. Herriko taldeen elkargunea izan eta erabilera anitz ematea du helburu Udalak, eta 408 lagunentzako edukiera duen auditoriumak kulturaren erreferente izatea da asmoa.

IRATI SARASUA ARABAOLAZA

Argazkiak: Dani Blanco

KARLISTALDIAK amaitu ostean, Hondarribian berpizkundea izan zen eta hiri berria eraiki zuten; zehazki, Portu auzoa bihurtu zen hirigune. 140 urteren ostean, erdigune bihurtutako inguru horretan kultura garatzeko auditoriuma eraiki dute. Urte osoan zehar kultur proposamen ugari izaten dute herrian, eta orain arte kalean izaten ziren, baina eraikin berriarekin beste bide bat ireki nahi izan diote kulturari.

Jarduera horiek indartu asmoz hasi ziren, 2010. urtean, 408 lagunentzako edukiera eta 1.200 metro koadro duen Itsas Etxea Auditoriumaren eraikitze lanak, herriko kultur eta musika elkarten agertokia izateko xedearekin. Bertan emanaldi eszenikoak, musikalak eta ikus-entzunezkoak egingo dituzte. Besteak beste, musika arloan hiriko elkarten kontzertu instrumental eta bokalak eskaintzen dituzte, baita kontzertu didaktikoak, heldu eta haurrei zuzendutako antzerki saioak, hainbat dantza estilotako emanaldiak eta zinemagintzan eta bideogintzan oinarritutako ekitaldiak ere. Esate baterako, 25 urte geroago zinea itzuli da Hondarribira, euskarazkoari garrantzi berezia ematen zaiolarik.

Ireki zutenetik era guztietako jarduerak izan dira eraikinean; besteak beste, antzerki emanaldiak (*Errautsak*, *Vaya Semanita*, *Kafe txinatarra* obraren estreinaldia, *PaGAGnini*), haurrentzako emanaldiak, filmak, kontzertuak (Nazioarteko Gitarra Jaialdia, Euskadiko Orkestra

Sinfonikoa, Ruper Ordorika...) eta bestelakoak, Euskadiko Pintxo Txapelketa esate baterako.

Herritarren erabilera xede

Udaleko ordezkariak diotenez, kultur ekoizpenak eskaintzeko eta euskarazko sormena bultzatzeko gunea izango da Itsas Etxea, horregatik kontuan hartuko dute urtero euskarazko emanaldien proposamen-sorta eta ahalegin berezia egingo dute programatzen.

Hondarribiko Udaleko Kultur zinegotzi Txomin Sagarzazuren esanetan, helburua



Auditorium berriaren kanpo aldea.



HONDARRIBIKO UDALAK UTZIA

408 lagunentzako tokoa du Itsas Etxea Auditoriumak. Kalea izan da, hura eraiki arte, kulturarentzako gune bakarra Hondarribian, eta ez dio gune garrantzitsua izateari utziko auditoriuma zabaldu izanagatik.

Itsas Etxeko Auditorioa Hondarribiko kulturaren erreferentzia izatea da. Hondarribiko kultur eragileek azpiegitura hori euren etxea balitz bezala erabiltzea gustatuko litzaieke, mota guztietako ekitaldiak eskaintzeko. “Itsas Etxea Auditoriuma hondarribiarren arte sorkuntza eta adierazpidea bultzatzeko eta gauzatzeko aretoa da”, dio Sagarzazuk

Kalean ere kultura

Kaleko jarduerak izan dira orain arte kulturaren gunea Hondarribian. Urtean zehar data jakin bati lotuta Euskal Herrian egiten diren ohiko jardueraz gain, Hondarribian herriko ohiturei lotutako beste zenbait egun erabiltzen dira kultura sustatzeko, batez ere udan.

Uztaila erdian –aurten hilaren 12tik 15era bitartean– Hondarribiko Blues Jaialdia egiten da. Ekitaldi erakargarria izaten dela azpimarratu du Txomin Sagarzazuk. Iaz, esaterako, Raimundo Amador musikaria aritu zen, jende askoren aurrean. Zazpigarren edizioa izango da aurtengoa.

Kutxa entrega

Santiago Eguna ere oso errotuta dago herrian. Udan atunak biltzen diren arrantzaleak Santiago bezperan herrira itzuli eta ospakizuna egiten dute. Ekitaldi erakargarria gauzaten dutela dio Sagarzazuk, “Kutxa entrega” izeneko: arrantzale baten alabak kutxa buru gainean daramala elizara joaten dira, eta han arrantzaleen kofradiako urteko kontuak egiten dituzte. Buelakoan, Arrantzaleen Hermandade historikoaren aurrean, Kutxa oraindik buru gainean duela, emakumeak jira eta bira egiten du. Kondairak dio zenbat eta buelta gehiago eman, hainbat eta urte oparagoa izango dela arrantzan.

Herriko kultura gehiago indartu asmoz, udarako Kultur Etxea irekiko dute Alde Zahararen bihotzean. Aldi berean Musika Eskola, Musika Bandaren egoitza eta txistularien etxea izango da eraikina, eta 100 lagunentzako auditorioa izango du. ■



Liburuak

KRITIKA

Eredu bat

Helduen literatura | ZUTABEGINTZA

Aritz Galarraga

ORAIN HAMAZAZPI URTEKO HITZAURREAN esaten zaigu: zutabegintza ia garatu gabeko lana da euskarazko prentsan. Urteak ez dira joan debalde, egun zutabegileak baditugu, gutxi-asko: irakurtzeko modukoak, jarraitzekoak, erreferentziazkoak. Baina irudipena daukat artean ez garela gintza horretan bereziki nabarmentzen. Oraindik gogoan dut, ez hamazazpi, baina urte batzuk bai, lagun arrotzak sinadurak eskatu zizkidala-eta ireki zitzaidan desertu luze-zabala –gaur asmatuko nuke, uste dut–. Prentsako zutabeen antologia liburuak izan daitezke mankantza historiko hori neurtzeko beste termometro bat. Badago zutabeak ohiko agerkerietan soilik bizi behar direla defendatzen duenik. Liburuan bigarren bititza bat –osatu, bahetu, luzeagoa– izan dezaketela uste dutenetakoa naiz ni. Eta gurean apenas publikatu izan dira horrelakoak.

Tetris da liburu horietako bat, Luistxo Fernandez kazetariak apailatua. Testuetako asko aurretik argitaratuak izan ziren, ARGIA honetan bertan, Arrasate Press desagertuan, *Euskaldunon Egunkaria* armez zarratuan. Baina



Tetris.
Luistxo Fernandez.
Elkar, 1995.

jasotzen dira bilduma honetarako propio idatzitako iritzi artikulak sakonxeagoak ere. Motz-zuzenak lehenak, pausatuagoak bigarrenak, denek uzten dute agerian kazetaritza egiteko modu bat: aktualitatearekiko arretatsua, bizkorra, jakin-minez betea, munduaren norabideak ematen duen segurtasun gabezia horretan jokatzeko, arriskatzeko, bustitzeko apustu egiten duena. Benazko kazetaritza, nire uste makurrean.

Internet ezandaren aurreko garaiko testuak izanik –nahiz ezandaren zantzuak jasotzen diren–, batez ere momentuko giro politiko-kulturalean jartzen du arreta kazetariak. Garaiari hartzen dio pultsua, uneko hainbat gatazkari –Balkanak, Kaukasoa– kasu eginez, nahiz intelektualki arnasten denari –multikulturalitatea, zuzentasun politiko–. Eta garrantzitsuena, nagusiki munduan zeharreko kontuez ari den arren, Euskal Herria duela uneco begi ertzean, kliska bat baino gehiago egiten diola bertako errealitateari. Hotz xamar hasten da bilduma. Hoztasun horrek Europako herrialde ezberdinetako eskumaren gorakadari buruzko *Larrun* batean jotzen du gaina. Hortik aurrera, ordea, abiada hartzen du kontuak, zirikatzaile, zorrotz, deseroso, oldoztu eta posizio hartzera behartuz irakurlea.

Agian orain dela hamazazpi urte baino hornituago gaude zutabegileez orain. Jarraitzen dugu horien liburu emaitzarik izan gabe ordea. Eredu gutxi dugu, eredu gutxi utziko dugu. *Tetris* honetan bada eredu bat behintzat, baliagarria, besterik ez bada hartu eta zalantzan jarri, eztabaidatu edo kontra egiteko.



txondorra
erretegia

☎ 943 794 276

Bizkaia etorbidea, 9 / 9

Arrasate (Gipuzkoa)

txondorra-sagardotegi.com

Diskoak

IKER BARANDIARAN



Ost.
Ost.
Maldito.
Iraupena: 51'04".
10 euro.

Metalaren gotorlekua irekia da

BERMEOTAR beteranoak, Euskal Herriko thrasharen eta metalaren gotorlekuaren zaindariak, bizirik daude, orbain latzekin baina bizirik eta bosgarren diskoa besopean dakarkigute, Madrilgo Maldito diskoetxearekin argitaratu dutena, bidenabar esanda. Iluna da diskoa eta oso gogorra. Metalaren hainbat alorrei egiten diete tira eta beteranotasunak ematen dien maisutasunaz gainera. 90eko hamarkadako hasierako thrasharen bertako ordezkari bakarrene-

tariakoak dira –Legen Beltza talde laguna desagertu berri da, gainera– eta, horrez gain, speed-metala, rock amerikarra, hard-rocka, grungea eta beste ere lantzen dituzte. Are gehiago, Kapi-ren ahotsa edozein estilo eta girotara ederto egokitzen da. Eta ezin ahaztu, taldearen irekitasunaren erakusle hain gutxitan errebindikatua den Errobi ere bertsionatu dutela.

<http://www.ost-taldea.eu>

Joni, Ost

«Azalean bost orbain agertzen dira, orain arteko bost diskoen erakusle»

Diskoaren azala gogorra da. Bizitza eta urteen joana bezala?

Bai, gutxi gorabehera diskoaren azalak horixe nahi du adierazi. Bost atzaparkada agertzen dira, bost orbain moduan, orain arte egin ditugun bost diskoen erakusle. Odola ikusten da, asko kostatu zaigula adierazteko. Guztia giro ilun batean, hala ikusten dugulako mundua.



dea eta izen hori bermeotarra da.

Xanperekin etxean moduan grabatu duzue?

Xanpe izatez bosgarren taldekidea da. Guk baino hobeto daki zein den nahi dugun soina. Aurrekontu mugagabea izan arren, ez genuke beste teknikari batekin grabatuko.

Oso berezia iruditu zait Gure lekukotasuna bertsionatzea,

Euskal Herriko lehen rock taldearena. Zergatik, teoriarik hain urrun dagoen talde hori?

Hain urrun!? Zuk badakizu zer adin dugun?! Errobi taldearen eragin zuzena izan dugu anaiak eta biok, eta zuzenean ikusi genuen, gainera. Gerora, 2010ean Bermeon egin zen Ibilaldian jotzeko gonbidatu gintuzten, eta aspalditik buruan nuen *Gure lekukotasuna* bertsionatzea lortu nuen. ■



“Luzea eta neketsua gertatu zaigu bidea”. Nola eutsi hainbeste urte borrokan?

Ilusioz. Musikagatik sentitzen dugun lilura, errespetua, maitasuna. Agertokira igo garen bakoitzean igartzen dugun sentsazio multzoa.

Esango nuke orain arte grabatu dituzuen kantu gogorrenetariko batzuk hemen daudela, disko honetan.

Izan daiteke, gure diskografiako kantu gogorrenetariko batzuk

daude *Bost* diskoan, baina ez da disko osoan gure alderik gogorrena agertzen. Honen adibide bi: *Gure Miraria* eta *Kasualitatez* kantuak.

Nongoak zaretzen etiketatzea gustatzen ez bazaizue ere, “txerrenen”, “tatarrez”, “ostotsa” eta antzeko adierik mapan jarri zaituztete. Ez dago bermeotar harrotasunik?

Ei ei! Gu oso harro gaude bermeotarrak izateaz eta hori nabaria da. Bidxorrak izan zen gure lehen tal-

Ezpalak

JON TORNER

Dantza eta bertsoa uztarturik, Haatik taldearen oinetan

HAATIK dantza konpainia sortu berriak *Errimak oinetan*. *Dantza berriak bertsoei jarriak* ikuskizuna estreinatu zuen pasa den astean Leioan (Bizkaia). Bertso saio baten egitura du ikuskizunak. Dantzariak bakarka eta binaka arituko dira eszenatokian, grabatutako bertso musikatuak entzuten dituzten bitartean. Unai Elizasu gai-jartzaileak eta Aiert Beobidek zuzendu dute ikuskizuna eta Beobide bera, Maitane Mujika, Onintza Odriozola, Garazi Lekuona, Gotzon Poza eta Iurre Aranburu dantzariak parte hartuko dute. Ekainaren 17an Ondarroako (Bizkaia) Kafe Antzokian eskainiko dute ikuskizuna, eta uztailaren 1ean Azpeitiko (Gipuzkoa) San Agustin kulturgunean.

Munduko Txotxongilo Kongresua Tolosan eta Donostian



2016. URTEAN Munduko Txotxongilo Kongresua eta Jaialdia Donostian eta Tolosan (Gipuzkoa) egingo da. Tolosako Topic Nazioarteko Txotxongilo Zentroak

eta Donostia 2016 egitasmoak bultzatu dute hautagaitza, giza eskubideen alde lanean diharduen Unima nazioarteko txotxongilo elkartearen espainiar federazioarekin batera. Kontinente guztietako 50 konpainia inguruk hartuko dute parte kongresuan.

'Sua' filma ekainaren 29an estreinatuko dute Tolosan

HERRI MAILAN eta modu amateurrean grabatutako *Sua* filma pasa den larunbatean aurre-estreinatu zuten Ozetako (Araba) Otaza auzoan, eta ekainaren 29an estreinatuko dute Tolosako (Gipuzkoa) Leidor aretoan. Duela zortzi urte hasi ziren Eneko Aritzaren lagunak elkarteko kideak filmaren grabaketa lanekin. Filmak XVII. mende hasieran Euskal Herrian izan zen inkisizioa du oinarri. Guztira, 700 lagunek parte hartu dute "herritik sortutako" filman. Diru eta baliabide "gutxirekin" egin dutela adierazi dute egileek.

Michael Haneke

zuzendari austriarraren *Amour* filmak irabazi du Cannesko Zinema Jaialdiko Urrezko Palmondoa. Ramon Agirre aktore donostiarrak (argazkian) hartu du parte film horretan.

Paper nagusiak, bestalde, Jean-Louis Trintignant eta Emmanuelle Riva aktoreek bete dituzte.



DANI BLANCO

Joxe Azurmendik

Miguel de Unamunoren *Paz en la guerra* nobelaren irakurketa filosofikoa plazaratu du Txalaparta argitaletxearekin: *Bakea gudan. Unamuno, historia eta karlismoa*. Egilearen arabera, XIX. mendeko filosofia puskatu eta gainditu dutenen artean Unamunok garrantzi handia izan du. Unamuno bere kontraesanetan ulertu behar dugula dio Azurmendik eta horregatik, aipatu nobelaren inguruan egindako tesi espainolistak faltsifikazio bat direla adierazi du. Hitzaurrea Joseba Sarrionandiak idatzitakoa da.

Alain Urrutia

artistak (Bilbo, 1981) 1970eko hamarkadan egindako *performance*en argazkiak ardatz dituzten 18 tinte jarri ditu ikusgai Bilboko Rekalde aretoan. Besteak beste, Vienako akzionismoko artisten lanak izan ditu oinarrian, Rudolf Schwarzkogler eta Otto Muehl sortzaileen artean.


Juan Miguel Gutiérrez zuzendaria

euskal zinemaz mintzatu da *Euskonews & Media* aldizkari elektronikoa: «*Ama Lur* kasu isolatu bezala geratu zen. Ia-ia gure egunera arte ez da



SANSEBASTIANFESTIVAL.COM

berriz eman ahal izan. Zergatik? Oraintsu arte Ama Lur-ek irekitako bidean euskara ez baita lehen protagonista izan, alegia, ez da gure hizkuntza erabili filmaren mezua bere osotasunean eskaintzeko. Euskal sustraian behar bezala errotu gabe ibili da, bi hamarkada luzetan. Orain, berriz, Asier Altuna, Telmo Esnal, Eneko Olasagasti, Carlos Zabala, Josu Martínez, Jose Mari Goenaga, Jon Garaño, Mireia Gabilondo eta euskal kulturatik zuzenean edan duten beste zuzendari askori esker egiazko euskal zinea egiten ari dela esango nuke.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@ DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

Abarak

GORKA BEREZIARTUA

Hurbilekoa, xalografia agian

Les neiges du Kilimandjaro. Zuzendaria: R. Guédigian.
Frantzia, 2011. 107 minutu.

BURGESTU EZ, baina ikusten da *Les neiges du Kilimandjaro* filmeko protagonistek iraganean sakela hotzago eduki dutela orain baino. Sindikalista erretiratu, langabetu eta lapurren istorioa da Robert Guédigian zuzendariaren azken pelikula. Lan- eta bizi-baldintza hobeak lortzeko urtetan borrokatu duen pertsonaia da Michel, protagonista; beroaldi ekonomikoak baretu zuen langile borrokalariaren ideia sintetizatzen du. Christophe gazteak berriz, behargin berrien egoera gorria: lanik gabe, anaia txikiak aurrera atera behar eta lapurretan hasten da.

Filmak klase-elkartasuna gorensten du, galdutako baloreak berreskuratze-ko premia, eta ondo jaso dezake Michel bezalakoek historiaren momentu hau nola bizi duten: ezin berreskuratu izan



zarena, oraingoak ez duela balio konturatu eta zer egin jakin ez. Baina ikuspuntu xalografia edukitzea ere kritikatzen ahal zaio. Eta beharbada beharrezkoa da hori proposatzen duen balore aldaketa gauzatu ahal izateko, baina ez pelikula bat egiteko: Guédigian optimista antropologikoa da eta horren ondorioz eszena batzuk behartuegiak dira. Ez espero, bestalde, ideia iraultzaile-rik Marseillako proletarioen istorio honetan, atera daitezkeen ondorioak hurbilago baitaude karitatetik, justizia sozialetik baino.

Bainak bildu dizkiogu pelikulari eta ahaztu zaigu esatea gustatu zaigula, hala ere. Ez baita mundua diskurtso handietan eta hil ala biziko engaiamenduetan bukatzen, eta *Les neiges du Kilimandjaro* eragiten du pertsonaiekin halako hurbiltasun bat, "zinema sozial" esaten zaion horretako beste pelikula askok gustura hartuko luketena. ■



Kalean da ekaineko



aizu!

- Euskara ere eguzkitan
- Konkista baten kronika
- Housekide, zahartzarora bizitzeko
- Euskal moneta sortzen
- Barry Manley barrez
- Kontsumo kooperatiben oraina

Urte osoko harpidetza (Hego Euskal Herria eta Espainia) 29 €

aizunet.org

Denbora-pasak

ANA ZAMBRANO

Hitz gezidunak

Gaia: Kostaldeko herriak

1	BASKIMAGEN	ELITZ ZABALA HABE ARTEKO HUTSUNE	1 AURRIZKI	PITZADURA, ARRAILDURA LEHEN BOKALA	DUT, GIPUZKOAN TENDEL, MOTEL	PEDRO TAPIAS/ BASKIMAGEN	2
		HITZ EMATEA BAILARA, IBAR		NORAT ATZIZKIA IZENA (LABURDURA)			
AHOKADA HEDATSU	MOZKORTIAK 2					3 DERRIGORREZ	EDERRA, SOTILA LA-IA
			AZKEN OINUTSIK				
EGIPTOKO ERREGE INFIN., SAKATU				DANBOR ZAPAL PONPA			
		GIZONEZKO IZENA AITALEHENA			LEHEN ZATIA EGIN ZIZTADA		
NOKA, DUT ... ZEDONG, LIDER TXINATARRA			HANDITUZ JOAN INFIN., FIDATU			IDI, HITZ-ELKARKETAN OXIGENOA	
		ESERLEKU LUZE ETA BIGUNA GAZI-GOZO		ERABAT LASTERKA GAIXO			
PEDRO TAPIAS/ BASKIMAGEN							GAIZKA IROZ
	4 JANTZI MOTA						
				JOAN DEN URTEA			4

Kike Amonarriren umorea

Babarrunak eta petrolioa

- Zergatik dituzte tolosarrek babarrunak eta arabiarrek petrolioa?
- Tolosarrek lehenago aukeratu zutelako!



ARDO BELTZ-CC BY SA

Adimen kotzientea

- Mediku anderea, esan didate nire adimen kotzientea 50ekoa dela eta ez dut ulertzen zergatik.



- Lasai, gizona! 50eko adimen kotzientea baldin baduzu, normala da ez ulertzea.

Soluzioa

				P					
	D			E	K				
	A	T		R	A				
	R			A					
H	B	I		A	K				
	Z			I					
	H	O		R					
	B	A		A	Z				
	Z	A		F	A				
		S		A	K				
		D		I	N				
		M		A	O				
				S	O				
				G	A				
				B	I				
				J	A				

Zero Zabor *bloga*



*Hondakinik onena,
sortzen ez dena*

Hondakinen inguruan Euskal Herrian
eta munduan sortzen diren informazio,
dokumentu eta iritzien agertokia.



Zientzia eta teknologia

JOXERRA AIZPURUA

Txokolate beltzaren onurak

GIZAKIA orain dela 4.000 urte hasi omen zen txokolatea kontsumitzen. Cristobal Coloni egozten zaio Euro-para ekarri izana Ameriketara egindako laugarren bidaiari, 1502. urtean. Amazoniaren arroan bizi ziren pertsonak hartzen zutena, egun mundu osoan hartzen da.

Ikerketa ugari egin dira txokolatearen onurez, eta oraingoan Kaliforniako San Diego Unibertsitatean egindakoaren berri eman nahi dizuegu. 31 laguni, hamabost egunez, egunero 50 gramo txokolate beltz edo 50 gramo txokolate zuri hartzeko eskatu zieten. Norberak erabaki zuen egun bakoitzean zein txokolate mota kontsumitu, eta saiakeraren hasieratik amaierara hainbat parametro alderatu ziren, esaterako, presio arteriala, lipido kantitatea eta glukosa.

Alderaketa egin ostean oso garbi geratu zen txokolate beltza kontsumitu zutenek presio arterial baxuagoa, kolesterol maila egokiagoak eta glukosa gutxiago zituztela gainerakoek baino. Hala ere, ikerlariak ohartarazi dute txokolate asko jateak kaloria eta gantz saturatu kantitatea handitzen duela, eta beraz egunero 50 gramotik gora jatea ez dela komeni.



ANDRÉ KARWATH



Nanoteknologia marea beltzen aurka

AEBetako, Espainiako, Belgikako eta Japoniako ikerlari talde bat, nanotutuekin saiakera bat egiten ari zirela, ohartu zen karbonoari boroa erantsiz gero nanotutuak harrotu egiten direla, belakiak izango balira bezala, eta uretan ongi flotatzeaz gain bertan izan daitekeen petrolioa eta olioak xurgatzen dutela.

Nanotutuez sortutako materialak bere pisua ehun aldiz handitu dezake olioak xurgatuz. Konprimatu eta olioak hustu ondoren –belaki arruntekin egiten dugun antzera–, beste 10.000 aldiz errepikatu daiteke prozesua; beraz, belaki berezi horiek behin eta berriro erabil daitezke beraien propietateak aldatu gabe.



Solar Impulse hegazkinaren balentriak

Hamar zaldiko lau motor dituen hegazkinak, Suitzan aieratu ondoren, hamazazpi orduko bidaia egin zuen Madril lur hartu arte. 12.000 zelula fotoelektrikoren bidez elikatzen dira motorrak, eta hurrengo bidaia Marokora egingo du. 2014. urtean munduari bira osoa ematea espero dute.

ttiki.com/38818 (Frantsesez)

Tabako ekoizleentzat legea zorrozten AEBetan

AEBetako administrazioak ezarritako arau baten arabera, ekainetik aurrera tabako ekoizleek gizarteari ezagutarazi beharko diote tabakoa erretzean sortzen diren 93 –gutxienez– substantzia toxikoen zerrenda, eta haien ezaugarriak zeintzuk diren.


ttiki.com/38819 (Frantsesez)

Bendak zaurian itsatsita ez geratzeko sistema

Denoi gertatu izan zaigu inoiz, zauria estaltzen duen benda kentzean, mina izatea, zaurian benda itsatsita geratzen baita gehienetan. Ikerlari talde batek lortu du, bendei almidoi zuntzak erantsiz, zauriekiko itsas-kortasuna saihestea, eta horrez gain komuneko papera merkeago ekoizteko sistema ere asmatu dute.

ttiki.com/38820 (Gaztelaniaz)

JEFF FITLOW



Babeslea: **iametza Interaktiboa**

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Alkohol tratuan

MOKOFINEN ZORROZKILERO NAGUSIA frantsesa izango da. Besteak beste, jaten eta edari, biak plantatzen ez dira ez kamutsak gure iparraldeko auzoak. Irabazpide emankor bihurtu ere. Eta guk, bestetxeko edo etxekoneko on, ikasi. Irabazpide, negozio, tratu... Izan ere, tratularitarako euskalduna! Jatenari dagokionez, hemengo sukaldariak egundalakoak egin dituztela jakina da. Edari kontutan, ordea, nire ustea zeharo bestelakoa da. Mahats-ardotan frantziar eskola horri etekinen bat kentzen diogu, baina hortik kanpo ezer gutxi. Badugu, bai, non ekin: muztioak, zukuak, sagardoak, udare-ardoak, garagardoak, likoreak, uxualak...

Lehenago aipatzen nuen Citadelle gin frantziarra. Hemeretzi landareren azal, zuku, hazi eta abarrekin egiten dutela diote, eta banan-banan marrazki bidez erakusten dituzte botilan. Hala omen. Hemen nire amen-omena: itxura besterik ez da, eta formula terralpean ezkutatz gina haizatu nahi dute. Marrazkiak halamoduzkoak dira eta landareak ez dira zehatz-mehatz ezagutzeko eran azaltzen. Landareetan argien azpimarratzen dena bere urrutiko jatorria da, exotikotasuna, alegia. Adibidez, laranja azala Mexikotik ekarritakoa dela dio, sinistatzen al duzu? Laranjeta Mediterraneora edo Asia aldera jo beharrean Mexikora? Mexikon bada Mexikoko laranjondoa izena duen landare bat, *Choisya ternata*. Haren loreak laranjondo aruntarenaren antzekoak dira eta hostoak igurtziz gero usain zitriko nabarmena askatzen du. Gingintzan erabilitako benetako landarea gordean jaso nahi dute eta Mexikoren sona soila erabili? Zer tankera ematen diozu?

Ez nau harritzen. Dunkerquen egiten dute gin hau, eta bere kai aldameneko gotorlekua edo zitadelatik hartua du "Citadelle" izena. Portu estrategikoa izaki, Frantziako handienetakoa da. Espainia, Ingalaterra, Herbehereak, Alemania, Frantzia, denak aritu izan dira hiri hau eta, berarekin, Mantxako kanalaren kontrola bereganatzeko guda ahaleginetan. Dunkerquek ezere



CHTI-GITTE

Goian: "Diabolo flamand" edaten, Dunkerqueko inauterietan. Eskuinean: *Choisya ternata*, Mexikoko laranjondoa.



STAN SHEBS-CC BY SA

sona badu bere korsarioen azioena da. Okerkeria horien bidez, mundu guztitik Europarantz zetozen itsasontziak harrapatu eta harrapakatzen zituzten. Tartean espeziak zekartzatenak. Portuarekin lotzen dute egileek gin horren landare oparotasuna.

Inoiz bertako inauteetara hurbiltzeko aukerarik izanez gero ez alferrik galdu. Soilik egun horietan 1983an asmatutako edari berezia hartzen dute: "Diabolo flamand". Gina, limoi edari zuria eta bioleta ziropa ditu. Zale amorratu taldea ere badu edari honek, LNPFD, Ligue Nationale de Protection du Diabolo Flamand.



CARLOS REGLA



Sasikoa

Aurten, *Robinia pseudoacacia*, sasiakaziaren urtea izan da. Bere eguneroko hitzen hiztegi bikainean sartzeko adinako kilima eragin dio Anjel Lertxundiri ere. Nahastu zaigu baina maisua, akazia deitu dio, askok bezala. Zaharrek arkazia deitzen diote, baina beste zuhaitz jende bat da akazia, Afrikakoa. Geurea sasikoa da, amerikarra.

Ekaitzak erantzi ditu lore laru usaintsuez eta lur-estali azpiak. Eta gogoan izan: "Sasiakazia lore, antxua urre".

Denboraren makina

N A G O R E I R A Z U S T A B A R R E N A

Matematikak erabaki zuen D eguna

NORMANDIA, 1944ko ekainaren 6a. Tropa aliatuak kostalde atlantikoko hondartzetan lehorreratu ziren. Naziek okupatutako mendebaldeko Europaren askapena hasi zen, lehorreratutako 175.000 soldaduei esker. Eta Arthur Thomas Doodson (1890-1968) matematikari britainiarri esker.

Hitlerrek garbi zeukan aliatuak Frantziako kostalde atlantikoan lehorreratuko zirela. Eta horregatik Erwin Rommelen eremu horietako hondartzen defentsa antolatzeko eskatu zion. Minak, txarrantzak eta bestelako oztopoak jartzea erabaki zuen. Baina itsasgoran traba guztiak ezerezean geldituko ziren. Horregatik urak estalita ere ontzien kroskoak matxuratuko zituzten egurrezko egiturak ipini zituen.

Horrenbestez, aliatuek ez zuten lan erraza. Itsasbeheran lehorreratuz gero, aipatutako oztopoez gain, soldaduek distantzia luzeagoa ibili beharko zuten hondartza irekian babeslekuetara iritsi baino lehen eta, hortaz, jomuga errazagoa izango ziren alemaniar tiratzaileentzat. Itsasgoran, Rommelen tranpek aliatuen lehen ontziak hondartuta utziko zituzten, eta gainerako ontzietako soldaduek ezin izango zuten lehorreratu. Tarteko konponbidea zen egokiena: itsasaldiak ez zituen Rommelen egiturak



ROBERT F. SARGENT

Aliatuak Normandiako hondartzetan lehorreratzen, A.T. Doodsonek ezarritako D egunean eta H orduan.

estali behar, eraispen-taldeek garbi ikus zitzaten eta tropentzako korridore bat ireki zezaten, baina oso behera ere ez zuen egon behar, ontziak, soldaduak utzi ondoren, hondo jo gabe berriro itsasortzeko aukera izan zezaten, eta, jakina, soldaduek hondartzan ahalik eta denbora gutxien igaro zezaten.

Baina zer egunetan eta zer ordutan lortuko zuten itsasaldi perfektua? Arduradun militarrek adituengana jo zuten erantzun bila, besteak beste Arthur Thomas Doodsonegana. 1921ean matemati-

kariak itsasaldien azterketari buruzko ordura arteko lanik osoena argitaratu zuen, 388 marea-frekuentzia bereizi zituen, eta lan teoriko horretan oinarrituta, mareak iragartzeko makina diseinatu zuen AEBetako ejertzitoarekin elkarlanean. Ez zen horrelako lehen makina, baina bai zehatzena. Makinak lehorreratzeko egun egokienak ekainaren 5a, 6a eta 7a zirela ondorioztatu zuen. Eta 6ko data erabakita, lehorreratzeko abiatzeko ordu egokiena goizeko 6:30ak zirela esan zuen makinak. Doodsonen makinaren arrakastarik entzutetsuena izan arren, ez zen bakarra izan; itsasaldiak iragartzeko metodorik egokiena izan zen, 60ko hamarkadaren amaieran ordenagailuek ordezkatu zuten arte.



Arrastoak

New Yorkeko beste historia 870.000 argazkitan



EUGENE DE SALIGNAC

NEW YORKEKO UDALAK udal artxiboko 870.000 argazki ipini berri ditu sarean (www.nyc.gov). Funtzionarioek 1850eko hamarkadatik 1980kora bitartean hiriko eraikinei, egiturei, lanei... egindako argazkiak dira, eta oraindik bildumaren erdia ere ez dute ipini era-

biltzaileen eskura; bi milioi argazki inguru dira, guztira, eta digitalizazioarekin jarraitzeko dirua izan ahal osatuko dute bilduma. Ezkerreko argazkia (1914) Eugene de Salignac funtzionarioak egin zien Brooklyneko zubia pin-tatzen ari ziren langileei.

Alderdi Politikoaren Legea

Hamarkada bat ilegalizaturik

2002ko ekainaren 27an jarri zen indarrean Alderdi Politikoaren Legea. Hamar urtetan utzitako panorama ezin da penagarriagoa izan: ezker abertzaleko markak legez kanpo, egoitzak itxita, polizia operazioak eta atxilotuak, ehunka mila boto baliogabe... Batzuentzat “terrorismoa garaitzeko” balio izan du, beste batzuentzat biktimismorako, eta gehientzat, ezertarako ez.

URKO APAOLAZA



Batasunaren jarraitzaileak Donostiako egoitzaren atarian duela hamar urte; ezker abertzalea klandestinitatera pasa zen.

GERRA DEKLARAZIO BAT bezala da: badakizu nola hasten den, baina ez nola amaituko den. Hamar urteren ondoren, horixe gertatu zaigu. Badakigu nola hasi ziren ilegalizazioak: “Gaur, egun txarra da Batasunarentzat, ETArentzat eta terrorista guztientzat, aldiz, egun ona da demokratentzat eta terroristen erasoaren etengabe jasan duten guztientzat”, esan zuen Aznarren Justizia ministro Angel Acebesek, Alderdiaren Legea indarrean jarri zen egun berean. Baina, ba al dakigu hau guztia nola amaituko den?

Herri Batasunak arazo itzelak

izan zituen sortu zenean legezko izateko. Koalizioak hainbat urte behar izan zituen alderdi gisa erregistratzeko. Fiskalak etengabe egin zuen bere kontra auzitegietan, estatutuen anbiguetatea eta Espainiako Konstituzioa inperatiboz onartzea gora eta behera. 1986an Auzitegi Gorenak legalizazioa onartu zuen. Auzi hura “konbate politikoa” izan zela esan zuen Txema Montero abokatuak, eta konturatu gabe, hurrengo hamarkadetan tribunaletan jazoko zena deskribatu zuen.

1997an ezker abertzaleko egitura politikoen kontrako operazio han-

diak hasi ziren, Baltasar Garzón epailearen aginduz –“dena da ETA” teoriaren asmatzailea– HBko Mahai Nazionaleko kideak atxilotu zituztenez. Hurrengo urteetan sarekadak ugaritu egin ziren eta ezker abertzalearen aburuz ilegalizazioa *de facto* gauzatzen hasi zen Estatuak: “Hego Euskal Herria salbuespen egoeran dago. Lehen, Francok dekretuz ezartzen zuen, orain legea aldatuz egiten da” esan zuen EHko bozeramaile Arnaldo Otegi. 2000ko iraila zen, eta polizia nazionalak 20 lagun atxilotu berri zituen Ekin erakundekoak izateagatik.



ARGAZKI PRESS / LUIS JAUREGIALITZO



ARGAZKI PRESS / ANDONI CANELLADA

Ezkerrean, manifestazioa 2004an Herritarren Zerrendako papeletak eskuan. Eskuinean, debekaturik izan arren, D3M kanpaina egiten 2009an.

Azti ibili zen Otegi, zetorrena iragartzen ariko balitz bezala.

Alderdien Legea aldatzeko osagaiak ernetzen hasiak ziren urte horietan. Lizarra-Garaziko porrotaren ostean ETAk atentatu ugari egin zituen kargu politiko, epaile, kazetari eta abarren kontra; Foro de Ermua gisako taldeek iritzi publikoan eragiteko gaitasuna handitu zuten; 2000ko martxoko Espainiako hauteskundeak gehiengo osoz irabazi eta gero, *aznarismoak* eskuak libre zituen “ETAren inguruaren” kontra ekiteko; 2000ko abenduan PPK eta PSOEk Askatasunen Aldeko eta Terrorismoaren Kontrako akordioa sinatu zuten, Aznarren gurutzada blindatuz.

2001eko EAEko hauteskundeak tentsio betean egin ziren, Mayor Oreja-Rendondo Terreros tandem konstituzionalistaren eta Ibarretxe-ren arteko plebiszitua bailitzan. Ezker abertzaleak behera nola, egin zuen gora EAJ-EA koalizioak, eta Ibarretxe izendatu zuten bigarren lehendakari. 2009an, kargua utzi zuenean, Ibarretxe azaldu zuen 2001eko hauteskunde horien ostean hasi zutela PPK eta PSOEk abertzaleak Ajuria-Enetik kanporatzeko “estrategia”, eta atorra horretan sartu zuen Alderdi Politikoen Legea.

Lege bat metrailaz kargatua

Hori guztia gertatzen zen bitartean, Ignacio Astarloa azpilanean ari zen. Alderdien Legea prestatzeko arduraduna zen Justizia ministerioko idazkariordea. Astarloa Eusko Legebiltzarreko eta Espainiako

Kongresuko letratu izan zen iraganean eta ederki ezagutzen zituen Konstituzio Zuzenbidearen atakak. Guraso euskaldunak izanik ere, PP *antivasquistaren* paradigma da Astarloa –Kongresuan hizkuntza “koofizialak” erabiltzearen kontra esandakoak adibide– eta hala erakutsi zuen 2002ko martxoan PSOEko ordezkari bere kumea erakutsi zienean: “Lege hau bikaina da”.

1986an HB legeztatua izan zenean “konbate politiko” gisa deskribatu zuen Txema Monterok epaitegietan jazotakoa; arrazoi zuen

Euskal Herrian gehiengoaren mespretxua jasotzeaz gain, legeak Espainiako sektore progresistenetan ere errezeloa sortu zuen, Konstituzioaren kontrakoa izan zitekeelako. Amnesty Internationalek edota Nazio Batuetako Giza Eskubideen Batzordeak ere, euren zalantzak agertu zituzten. Batasuna ilegalizatzeko *ad hoc* egina egotea, ilegalizazio prozesua parlamentariak hasi ahal izatea, legearen atzera eraginkortasuna, zehaztugabea izatea... Azkenean, PSOEren eta CIUren emendakinek makillaturik onartu zuen Kongresuan ekainaren hasieran eta hortik gutxira indarrean jarri zen.

Legearen bigarren kapituluko 9. artikulua eta hirugarren kapituluko

10.a metrailaz kargaturik daude: alderdiaren izena, alderdiko kideen ibilbidea, indarkeriarekiko jarrera... Baina aldi berean, hizkera anbiguo eta zehaztugabea idatzitako legea da (*fomentar, promover, dar cobertura...*), diana nahi den tokian jartzeko.

Hortaz, 2002ko uda sargori hartan tiroa botatzea baino ez zen geratzen. Garzónnek egin zuen abuztuaren 26an, Ertzaintzari Batasunaren egoitzak itxi eta bere jarduerak etetea agindu zionean. Hilabete gutxiren buruan, ezker abertzalea klandestinitatearen aroan sartu zen.

Batasuna, Herri Batasuna eta Euskal Herritarrok-en ondoren, legez kanporatzeak bata bestearen atzetik etorri dira: bost alderdi politiko (EAE-ANV, PCE-r, ASB, EHAK eta Askatasuna) lau hautes plataforma (AuB, Aukera Guztiak, Herritarren Zerrenda eta D3M), alderdien koalizio bat (EH) eta hamarnaka herri plataforma. Horietan parte hartu duten kide asko, kode penala erabiliz atxilotu, auzipe-tu eta kartzelaratu dituzte gainera.

Azkeneko adibidea D3M hautes plataformako hamahiru lagunena da. Joan den maiatzean burutu da haien kontrako epaiketa Espainiako Auzitegi Nazionalean eta fiskalak bosna eta seina urteko kartzela zigorra eskatu du haientzat, ETAkoak izan edo berekin kolaboratzea egotzita.

Milaka herritar geratu dira bere hautu politikoari ofizialki bozkatu ezinik –2003ko foru eta udal hauteskundeetan, esaterako, 126.000 boto baliogabetu zituzten– eta beste ehun-

ka batzuek ezin izan dute hauteskundeetan parte hartu “kutsaturik” zeudelako. Era berean, hemiziklo guztiak desitxuratu ditu Alderdien Legeak hamarkada honetan.

Herri txikietan, tentsioaz gain, esperpentoak bizi ahal izan dira. Hala, Lizartzako udaletxean ikusi ditugu PPko ordezkariak bandera espainola jasotzen, eta Ondarroa moduko herri batean ikusi ditugu herritarrak intsumisio fiskala egiten... Ondorio politiko nabarmena 2009an jazo zen, Patxi Lopezek Eusko Jaurlaritza eskuratu zuenean.

Sortu eta kaiolako piztia

Ezker abertzaleak hauteskundeetan nola edo hala egoteko saiakerak egin izan ditu, eta zenbait kasutan, legearen zirrikitu txikiena baliatu izan du instituzioetan ordezkariak lortzeko. Dena den, ofizialki aurkeztu ahal izan den gehienetan, testuinguru politikoak lagundu izan dio. Halaxe gertatu zen ANV-EAEren zerrenden erdiarekin 2007an –Loiolako prozesuaren azken saioa–, eta halaxe gertatu da Bildurekin eta Amaiurrekin 2011n –ETAren borroka armatuaren amaiera fasea–. Espainiako auzitegiatiko erabaki bakoitzaren atzean bultzada politikoa ikusi nahi ez duenak betazalak astun ditu.

Estatu aparatuen makinariak, baina, halako Frankenstein juridiko bat sortu du auziz auzi, jurisprudentziaren bidez lan itzela egin baitu ilegalizazioak argudiatzeko: AuBren kasuan desegindako alderdietan ibilitakoak egoteagatik; Herritarren Zerrendaren kontrako auzian indarkeriaren gaitzespena kontra-zantzu modura ez erabiltzeagatik; Aukera Guztiak-en aferan “iruzur egiteko asmoa” demostratuta gertatzeagatik... eta segi.

Hori gutxi balitz, piztia elikatzen joan izan dira Espainiako bi alderdi nagusiak, Madrilen zein *antiterroristago* izan erakusteko bada ere. Horrela, 2010ean bake prozesu berri baten zurrumurruek aurrean, Alderdi Politikoen Legeari eta Hauteskunde Legeari torlojuak estutu zizkieten: estatutuetan biolentzia gaitzetsi beharko dute alderdi

berriek; inpugnazio epeak handitzen dira; hauteskundeetan aukeratuak izan eta gero ere zinegotziak kargugabetzeko aukera egongo da haien marka politikoa ilegalizatzen bada...

Alderdien Legearekin, Estatu aparatuen makinariak halako Frankenstein juridiko bat sortu du auziz auzi

Emmanuel-Pierre Guittetek ARGIAri eskainitako elkarrizketan zioen behin lege antiterroristak sortuta ezin dela arsenal horren engranajea gerarazi, haiekin jokatzera derrigortuta gaudela.

Auzitegiatiko “konbate politikoa” Estrasburgoraino eraman zuen Bataunak, baina honek 2009an ilegalizazioa baieztatu izana sekulako muturrekoa izan zen. Bi aukera geratzen ziren: klandestinitatean segi eta baztertuak izateko arriskua izan, edo jardura politikoan aritzeko Espainiako legeriak utzitako soineko estuan

kabitu. Ez dakigu zer pisu izan zuen dilema horrek ezker abertzalea “m”rik gabeko estrategia berrira eraman zuen hausnarketan prozesuan.

Hemezortzi hilabete geroago, Iñigo Iruinek ahozabalik utzi zituen guztiak Euskalduna Jauregian Sortu alderdiaren estatutuak zerrendatzen hasi zenean: indarkeria “irmo eta argi” arbuiatzea, Alderdien Legearen edukia “hitzez hitz” onartzea, militantei zigor disziplinarioak ezartzea...

Zuzenbidean aditu eta jurista gehienak bat datoz esatean estatutu horiekin Sortuk legezko behar lukeela. Auzitegi Goreneko hamasei magistratutatik zazpik boto partikularra sinatzea eta Bilduren aurrekaria seinale ona dira, ez ordea PPK eta PSOEk Konstituzio Auzitegiaren epaimahaia birmoldatzeko azken asteotan erakutsi duten asmoa.

Berriz ere esku beltz politikoaren itzala. Beraiek erabaki beharko dute: edo jate-na ematen segitu, edo behingoagatik, kaiolako piztia sakrifikatu. ■



2012

Uda

Haurrak, gazteak eta helduak

*Udalekuak, Barnetegiak Bilbon eta Bakaikun
Futbol Campusa, txangoak, antzerkia, oporrak,
bideoklip sorkuntza, igerilekua, tailerrak, akademia,
mintzamen taldeak, ikastaro trinkoak...*





Gabriel Aresti
euskaltegia eta akademia

www.gabrielaresti.com - Tel: 94 423 75 91 - Done Bikendi 2 - 4.a - Bilbo Elkarlan

Frantziako Legebiltzarrerako bozak

Ipar Euskal Herriko hiru diputatuak aldatzeko zorian

Legebiltzarrerako bozak dira hil honen 10ean eta 20an Frantzian. Presidentziarako bozen bi itzulien ondoren, ezkerren eta zentro-eskuinaren arteko hirugarren *tour de force* da lehenengo hau. Gure lurraldean, 4., 5. eta 6. boz-barrutietako hautagaiak ari dira lehian.

MIKEL ASURMENDI



GAIZKA IROZ

Erdi-erdian, Laurence Hardouin, Peio Etxeberri-Aintzart eta Anita Lopepe. 6. 5. eta 4. hautes-barrutiko EHBaiko hautagaiak.

IPAR EUSKAL HERRIKO politikariak lehia gorrian ari dira dagoeneko. Frantziako Asanblea Nazionaleko eserlekuak dituzte xede. Gurean, hiru dira boz eremuak: 4., 5. eta 6. barrutiak. Azken biek Lapurdi lurraldea hartzen dute. Lehenak, berriz, Nafarroa Beherea, Zuberoa eta Biarnoko zati bat.

Hautagaien kopurua zinez zabala da, zabalegia aukeran. Hamairu zerrenda daude 4. eta 5. barrutietan eta hamalau 6.ean. Esaterako, esparru politiko bakoitzeko bizpahiru hautagai daude: zentro-eskuineko eta ezkerreko hiruna, ekologista bi. Kandidatura abertzaleak ere hiru dira: EHBai, Amalur (EA eta Berdeak/Ekologistak) eta EAJ. Aukera

asko, anitzegia akaso. Izan ere, bigarren itzulian parte hartzeko hautagaitza minoritarioen proportzioa murrizta baita benetan.

Hiru barruti hauetako diputatuak aulkia zentro-eskuineko eta PSko hautagaien artean jokatzeko dira, funtsean. Honako hauek izan dira orain arteko diputatuak: Jean Lassalle (zentroa) 4. barrutian. Jean Grenet (PRV) 5.ean. Michelle Alliot-Marie (UMP) 6.ean. Azken biak, eskuineko *notableak*, alderdi ezberdinen pean. Lassalle, berriz, ez da alderdien (UDF edo MoDem) pean aurkezten oraingotan. Ipar Euskal Herriko ordezkariak Frantziako Legebiltzarrean zentro-eskuindarra izan da historikoki, ala-

baina, hiru hautagaiak ez dute egundaino aulkia horren kolokan izan. Hollande presidente berriaren aroan PSko hautagaiak diputatu izateko egundoko aukera dute. Hauek izaki hurrenez hurren: Frantxua Maitia (4.), Collette Capdevielle (5.) eta Sylviane Alaux (6.). Edonola ere, PSko hautagaiak nekez nagusituko dira lehen itzulian. Izatekotan, bigarren itzulian erabakiko dira diputatu berriak. Hirugarren *tour de force* ez ezik, laugarren baten beharra izanen da, antza denez.

Bigarren itzuliaren beharra

Zentro-eskuin zabalaren aitzinean, are anitzago den ezker-ekologista-abertzaleen hautagaitzak ere badau-

de. Lehen itzulian ezin hautagaik ez du deus onik erraiten arerioen alde. Konparazione, EHBaiek ez du Alliot-Marie berriz diputatu ikusi nahi, ezta Baionako auzapeza Grenet ere. Sinpatiak begi-bistakoak dira. Alta bada, zein dira PSko jarre-rak LGV (Abiadura Handiko Tren-bidea) eta Ipar Euskal Herriaren (Lurralde Elkargoa) instituzional-tzeari buruz? Bigarren itzulian sostengua, gai horien inguruko negoziazioen arabera ebatziko da zalantzarik gabe. Bistan da, boz abertzaleek (EHBai, Amalur eta EAJ) ez dute tokian tokiko PSko hautagaia sostengatuko. Hots, atxikimenduak anitzak dira, eta hautagaien nahikariak ezberdinak barrutitik barrutira. Azken buruan, bigarren itzulian herritarrek erabaki ohi dute molde libreagoan.

Abertzaleen emaitzei begira

Zentro-eskuinaz harago –Front Nacional– eta Alderdi Sozialistaz honago –Nouveau Parti Anticapitaliste, Ekologistak, Lutte Ouvriere...– aukera abertzaleak daude. Hauek ere zatituta. EAJ eta EHBai bi aukera izatea normaltasunaren barnean ikusi behar da. Harridura gehiago sorrarazi du Amalur (EA eta Berdeak) hautagaitzaren aurkezpena, edo beste gisa batez erranik, EA ez izatea EHBain. Horri buruz bi irakurketa egin daitezke: bat, EAK iraganean Europako Ekologista/Berdeekin eraman duen ibilbide politikoari eutsi nahi eta behar izatea. Bi, Euskal Herrian bizi den aro politiko berria oraindik aski ondua ez izatea. Hots, ildo politiko abertzaleek bidean bat egiteko hainbat urrats eman behar dituzte oraindik ere.

Dena dela ere, EHBai da etorkizuneko aukera abertzale sendoena, koalizio abertzale eta ezkerrekoa. Anita Lopepe (4.), Laurence Hardouin (5.) eta Peio Etxeberri-Aintzart (6.) dira hautagiak. EHBairen aldarrikapen nagusia kanpainen Euskal Herriaren ezagupen instituzionala da, baita Amalur eta EAJrena ere, bidenabar esanda. EHBairen indarra 4. hautes-barrutian nabari da. Hautes-barruti horretan lortu izan dute abertzaleek bozen ehuneko handiena iraganean. Ordea, paradoxikoki, hautes-barruti horre-

tan euskaldunek eta biarneksek bozkatzten dute. Zer nahi gisaz, lehen itzuliko emaitza neurgailu egokia izanen da hiru hautagaitza abertzaleen bozen indarra neurtzeko. EHBai jakitun da diputatu baten erdiesteko aukera murrizta duela. Orogen buru, 2014ko herri eta kantonomenduetako bozak lantzen ari da EHBai. Lurralde Elkargoa zirt edo zarteko gaia izanen da orduan.

Anartean, PSko Frantxua Maitia euskalduna da 4. barrutiko hautagai sozialista. Jean Lassalle biarnes zentristarekin lehiatzen ari da diputatuaren kargurako. Abertzaleen jarrera –EHBairena bereziki– erabakigarria izan liteke bigarren itzulian. Berriz ere, abertzaleen eta sozialisten arteko “joko” historikoa gauzatuko da.

Bake prozesu garaian

Iragan urteetan antzeko egoera bizi izan da Iparraldeko bozetan. Aurreko bake prozesuetan –Lizarra-Garazi edo Loiolakoak gogoan– boz kanpainak izan dira. Haietan, ezagupen instituzionalaren eta euskararen ofizialtasunaz gain, bake eta normalizazio prozesua laguntzea eskatu zuten abertzaleek. Oraingoan ere, *Euskal Herria: aterabide demokratikoa orain* aldarrikapena ozen zabaldu dute.

Abertzaleek lehen urrats gisara, preso politikoen hurbiltzea eskatzen dute. Abertzalek, eta ia-ia alderdi politiko guztiek, baina ez gisa berean, eta, betiere, kanpainen eskatu ere. Anartean, Oroitx Gurrutxaga eta Xabier Aranburu ustezko etakideak atxilotu ditu polizia frantziarrak Landesetan. Antzekoak ere ezagutu ditugu aurreko hauteskunde kanpainetan. Kasualitatea? Kausalitatea? ■



BESARO LANDA HOTELA



*Iratiko oihanaren
sarreran*



Tel.: 948 890 350
www.besaro.es
hotel@besaro.es

www.facebook.com/HotelRuralBesaro



‘Etorkinak eskolan’ egitasmoa

Azkoitiko haurrak euskaltegira doaz

Ikastetxean ahaleginak egiten dituzte etorkinen seme-alabek euskara ikasteko, baina baliabide gehiago gustura hartuko lituzkete hizkuntza arduradunek. Azkoitiko umeak AEKren euskaltegira doaz, haien euskarak abiada handiagoa hartuko duelakoan.

Testua eta argazkiak:

ARAITZ MUGURUZA EIZAGIRRE

UROLA BAILARAKO HERRIAK 11.495 biztanle (2012ko errolda) ditu. Azken urteetan gero eta atzerritar gehiago bizi da herrian. Gaur egun, biztanleriaren %8 dira. Gehienak pakistandarrak eta marokoarrak, %2,44 eta %2,37, hurrenez hurren. Kanpotarren haurrak irakaskuntzan hartzeak zekartzan aldaketez jabetuta, eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak emandako baliabideak murriztegiak zirela iritzita, hainbat eragilek *Etorkinak eskolan* ekimena sortu zuen, 2005ean.

Helburu nagusia euskara erakustea du, eskolarako lagungarri izango zaielako, baina baita Azkoitian integratzeko erraztasunak emango dizkielako ere. Xabier Munibe Ikastolako eta Floreaga Salestar Ikastetxeko umeak doaz euskaltegira. Hasierako talde txikiak gero eta handiagoak dira. Esate baterako, Xabier Munibe Ikastolan 800 ikasle dituzte gaur egun eta 112 dira etorkinak.

Etorkinen integrazioa ikastetxeen ardura bakarrik ez dela jakitun, egitasmoa hiru hankak osatzen dute: ikastetxeek, Azkoitiko Udalak eta AEK euskaltegiak. Eskolak AEK-ko irakasleek ematen dizkiete, euskaltegian, bi ikastetxeetako ikasleak nahastuta.

Bi urtean euskaldundu?

Hezkuntza Sailak ikasle bakoitzari bi urteko epea ematen dio euskara

ikasteko. Bi eskoletako arduradunei motz geratzen dela iruditzen zaie. “Esaten dute pertsona batek hizkuntza bereganatzeko zazpi urte behar dituela, beraz, hauek ezin dute bi urtetan dena menperatu”, dio Arantxa Zubizarreta Xabier Munibeko Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako zuzendariak. Hezkuntza Sailak *Hizkuntza Indartzeko Programa* laguntzen du diruz, –ikastetxean etorkinekin lan egiteko irakaslea egoten da, ikasle bakoitzak bi urtez jaso dezaieke laguntza hori–. Hasieran hori ere ez zegoela gogoratzen du Koldo Gurrutxaga Floreagako zuzendariak: “Ez genuen ez irakaslerik, ez materialik. Ikastetxean igarotzen zituzten sei orduetan besoak gurutzatuta egotera behar-tzen genituen”.

‘Etorkinak eskolan’ egitasmoan Essardi lehen belaunaldiko ikaslea izan zen. 17 bat laguneko gela zen eta orain guztiekin euskaraz egiten duela dio

Etorkinak eskolan proiektuari esker, Lehen Hezkuntzan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan matrikulatutako ikasleak joa-

ten dira eskolaz kanpoko klaseetara, lehendabizikoak astean hiru aldiz, eta bigarrenak, astean bi aldiz. Ikastetxe bakoitzak euskaltegira joan beharra dutenekin zerrrenda egiten du eta udalera bidali. Udalak gutun bidez baime-na eskatzen die gurasoei. AEK-k hileroko ikasle bakoitzaren balorazioa egiten du. Hiru urtez ematen zaizkio klaseak etorkin bakoitzari, nahiz eta batzuetan gehiago luzatu.

Jolasaren eta abestiaren bidez irakasten dute euskara. Hala esan digu Maite Azpiroz AEK-ko kudeatzaileak: “Ez dugu eskola erabat akademikoa eman nahi; dinamika eta jolasen bidez erakusten diegu, eta gusturago etortzen dira. Gainera, euskara gauza positibo batekin lotzen dute: ‘Klasera noa, baina ongi pasako dut’”.

Hassna Essardi ikasleak ere horrela gogoratzen ditu egun haiek: “Oso ongi pasatzen genuen. Ikasteko modua oso ona zen, liburuetatik eta etxeko lanetatik desberdina”. Essardi egitas-moko lehenengo belaunaldiko ikaslea izan zen. Xabier Munibe ikastolan ikasi zuen eta gero Eri-zain laguntzaile ikasketak egin zituen, Urretxun. Gaur egun Azpeitiko adinekoen egoitzan egiten du lan. 17 bat laguneko gela zen haiena eta orain guztiekin euskaraz egiten duela dio.



Marokoarrak eta pakistandarrak dira etorkinen seme-alaba gehienak. Ikasketxeaz gain euskaltegia daukate euskara eskola. Hiru urtez ere aritu daitezke ikasten.

Zaila ikasketetan aurrera egitea

Ikasketxean haur etorri berriak adinaren arabera dagokien mailan ipintzen dituzte. Hala ere, zail dute akademikoki aurrera egitea. Fun-tsezko ezaugarria falta zaielako batik bat: euskara jakitea. Hassna Essardik kontatu digunez, bi hizkuntza berri ikasi beharrak asko mugatu zituen bere helburuak: “Hona etortzerako banekien hemen bi hizkuntza ikasi beharko nituela eta beldurra ematen zidan. Nire ikasketekin aurrera egin nahi nuen, ahal zela unibertsitatera joan. Azkenean ordea, bidean geratu nintzen, euskaraz bai, baina gaztelania eta ingelesa ez nekizkielako”.

Lortzen dena: gutxienekoa

Helburu nagusia, etorkinak euskaraz hitz egiteko gai izatea, lortzen

dela ziur daude bi eskoletako arduradunak. Euskaltegikoena agerian dagoela uste du Arantxa Zubizarretak: “Esperientziak ematen duen indarrarekin dabilta. Haien laguntza beharrezkoa da, gurea ez da eta nahikoa”.

Irakasleek esan digutenez, ikasleek kalean eta lagunekin euskara erabiltzen dute: “Pakistandarrek eta marokoarrek elkarren artean euskaraz egiten dute, baita irakasleekin ere”. Hegoamerikar jatorria dutenekin zailagoa dela dio Koldo Gurrutxagak: “Gaztelaniara jotzeko joera dute”. Azken horien gurasoei ere, gehiago kostatzen zaie euskara ikastaroen garrantziaz jabetzea. Maite Azpiroz AEK-ko irakasleak dioenez, “badago haurra hona [euskaltegira] jolasera bakarrik ez duela ekarriko dioenik”. Dena den, horrelakoak salbuespenak

direla gaineratu du Azpirozek, oro har, ohartzen baitira seme-alabek aurrera egiten dutela.

Emaitzak nahiko onak izaten ari diren arren, ziur daude oraindik ere motz geratzen direla. Xabier Munibe ikastolako zuzendariak, Zubizarretak, hala dio: “Gu prest gaude honi aurre egiteko, baina baliabide bereziak behar dira eta ez ordu batzuetarako bakarrik, urte osorako eta lanaldi osorako”. Gainera, ez dute uste hizkuntza denik landu beharreko gauza bakarra, kultura desberdinetako ikasleak baitatoz: “Beste kultura batetik datozenez, zailagoa da horiekin lan egitea, haien ohiturak eta gureak desberdinak direlako. Horretarako bestelako baliabideak egon behar-lukete”.



Babeslea: Getxoko Udala

Karmele Esnal andereñoaren lorratza

MAIATZAREN 30EAN hil zen 79 urte zituela. Orion (Gipuzkoa) jaio zen 1932an. Ikastolen sorreran burubelarri ibili zen Orioko andereñoa. 1955ean Donostiako Pedro Egaña kalean zazpi haurri euskaraz eskolak ematen hasi zen. Haurrak ugalduta ahala tokirik gabe geratu zen eta Artzai Onaren plazako beste leku batean jarraitu zuen 35 ikaslerekin. Irakasle gisa aritzeaz gain, kazetari-tza eta kultur alorrean aritu zen. Zeruko ARGIA aldizkarian *Gazte nai* atalean idatzi zuen Maribeltz

ezizenarekin. *Panpin* izeneko euskarazko lehen komiki aldizkarian jardun zuen, baita Arrate Irratian ere. 1960ko hamarkadan Jarrai antzerki taldean aritu zen.

Desagertzeaz dauden hizkuntzak webgunean

ELKARLANEAN aritu dira National Geographic eta Living Tongues Institute for Endangered Languages. Munduan zehar desagertzeaz dauden hainbat hizkuntza ikertu dituzte eta informazioa webgunean (<http://travel.nationalgeographic.com/travel/enduring-voices/>) bildu

dute. Zenbait hizkuntza entzuteko moduan daude sarean eta hiztun komunitate horietara egin dituzten bidaietako argazkiak eta bideoak jasota dauzkate. Hizkuntza hauek daude entzungai: tuvan Siberiako hizkuntza, ho Indiakoa, siletz deeni AEBak eta Kanadaren arteko mendebaldeko mugakoa, matukar panau hizkuntza Papua Ginea Berrikoa, Paraguayo chamacoco, Indiako remo, Peruko Amazonian dagoeneko desagertu den muniche hizkuntza, Indiako sora, eta jatorri zeltiarra duten hizkuntzak.

Hitanoa ikastera barnetegira

MARAMARA TALDEAK *Mintza hadi, lagun!* egitasmoarekin segitzen du, eta uda honetarako hitanoa ikasteko barnetegia prestatu du, uztailaren 16tik 21era, Lizarrustiko parke-txean. EGA gaindituta edo euskaraz eroso aritzen direnek har dezakete parte, batik bat, euskara teknikariak, itzultzaileak eta irakasleak dituzte buruan. Goizez teoria landuko dute eta arratsaldez praktikoa. Maramara taldeak hitanoaz 25etik gora ikastaro eskaini ditu orain arte eta online jarduteko aukera ere ematen du.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argaia.com/harpidetza_haria.php

TALAIAN

Bankia, izebergaren punta

Bankiaren kiebrarekin, bere nazionalizazioarekin, eta ondoren iragarritako funts publikoetako 24.000 milioi euroko injekzioarekin sortutako egoera, benetan da larria eta beldurgarria. Espainiako herritarrak, Euskal Herrikoak bezalatsu, beldurtuta eta arduratuta daude. Jada, batzuei *corralittoa* ez zaie zientzia fikzioa iruditzen eta banku nahiz kutxetatik aurrezkiak ateratzen ari dira, Argentinan, Grezian eta Irlandan egin zuten moduan. Zergatik beldur hori? Bankiako hondamendia eta kiebra –Rajoyren familiak kudeatua– lehertzeaz den finantza sistemaren izebergaren punta baino ez delako.

Gezurra esan badigute; Bankiako hondamendiarekin engainatu eta manipulatu egin nahi izan bagaituzte; milioika euroko galerak zeuden tokian etekinak zeudela esan bagaituzte; Bankia diru publikoaz kapitalizatuko 4.000 milioi euro nahikoa zela esan eta ondoren 24.000 milioi izan baziren... Zeinek sinetsi diezaieke gezurra hain lotsagabeki esan duten ministro eta gobernuari? Zeinek ziurta dezake orain, Bankiako kapitalizazio milioidunaren ondoren, arazoa konponduta dagoela? Zeinek bermatuko digu Bankiaren ondoren ez direla finantza hondamendi gehiago azaleratuko, ezkutuko izebergaren gisan?

Rajoyren Espainiako Gobernuak ez. Herritarrak memelotzat eta ezjakintzat hartzen ditu. Ez zaio inporta gezurra esatea, manipulatzeko eta Bankia moduko finantza erraldoiak hondamendira eraman dituzten "gaizkile lepazuridunak" babestea. Babesa eman eta blindatu bakarrik ez, indemnitzazio eta erretiro milioidunak ere eskaintzen dizkie. Bitartean, langileak eta herritarrak murrizketak jasan behar! Euskal Herriak Espainiarekin loturak lehenbailehen hausten baditu, hobe!

Juan Mari Arregi



BAHEA

[Jone M. Hernández García](http://jone.m.hernandez.garcia@gipuzkoaeuskara.net) gipuzkoaeuskara.net-en esanak: "Hiztunak aurre egin dio bere errealitateari ahal izan duen moduan, bere egunerokotasunetik, bere kontraesanekin, bere ilusioekin, bere frustrazioekin, bere estrategiekin. Baina zer dakigu tarte horretan bizitakoaz? Zer dakigu garatutako emozio, sentipen, edota oroimenei buruz? Zer suposatu du egunetik egunera ukipen egoera horretan murgilduta izateak? Aniztasunarekin elkarbizi behar izateak? Zer suposatu du hiztunetik hiztunera hizkuntzaren bidetik zirkulatu behar izateak?"

Amnistia, txikle hori

EPPK-KO presoek azken agirian ez da esan orain arte kolektibo honek era batera edo bestera esan edo onartu gabekorik. Borroka armatua amaitu dela, ezker abertzalearen estrategia berriarekin bat egiten duela eta eragindako mina aitortzen duela dira mezu nagusietakoak. Baina EPPK-ko zalantza publiko handienak 2011ko irailean lurrundu ziren, honek Gernikako Akordioa sinatu zuenean, borroka armatua, bake prozesua eta biktimei buruz zer pentsatzen zuen argi utziz. Harrez geroztik, bestelako esan eta jarduerak espero eta iragartzen zaizkio.

Madrilgo Gobernuaren porlan posizioa presoek teiltzura eraman nahiko lukete batzuek, orain gatazkaren irtenbidea Moncloan baino, Herrera de la Manchan edo Fresnesen balego moduan. Baina ez, zakarregia eta baldarregia da ahallegina, egungo euskal gizartearen galbahean iragazi ezina. Espainia-koan bai, ordea, eta PPK hor jarri du bere trintxera, presoek eta haien senideei humanitatez dagokienez ere etsi barik.

Ezker abertzaleak, akaso urrats gehiago ere nahiko litzuke, baina kolektiboaren batasunaren ideia lehenesten zaio prozesuaren abiadurari. Lehen Batasunarekin gertatu zena, alegia. Kohesioaren ideia horretan sakontzen dute Imanol Murua eta Ramon Sola moduko kazetari eta analista politikoez, *Berria*-n eta *Gara*-n, hurrenez hurren. Muruak dio espero zela banakako irteerari buruzko zerbait: "Azkenean, ordea, ez da adierazpena esplizituki halakorik aitortzera iritsi, horretarako atea zabalik utzi duen arren, prozesu osoan lehentasuna izan duen irizpideari euste aldera seguruenik: hobe poliki eta baturik, azkar eta zatiturik baino".

Solak bi mezu lehenesten ditu, presoek bide politiko soilen alde egindako apustua eta hori era bate-



ABADIÑOKO GAZTETXEA

ratuan egin izana: "Kolektiboak orain egin du bere *Zutik Euskal Herria*, bere barne eztabaida estrategiko handia. Gainerakoa, 'egikaritzea' deitutako hori, ondoren etorriko da eta onartutako ildoaren ondorio logikoa izango da".

PRESOEKIN ados egon ala ez, haien esana garrantzitsua izan da beti, ezker abertzalearen espazio soziologikoan bereziki eta multzo zabaletan modu sakratuan ia. Eta samurra ez bada ere, bada ordua hauek ere gero eta gehiago parte har dezaten egoera politiko berriaren irakurketan eta, beraz, konponbidean.

Haien jardun publikoa, baina, bi dialektika nagusiren artean urtzen da oraindik: batetik, parte hartzeko

duen askatasuna eta beharra, eta bestetik, presoek jardun libreaz Estatuak errepresiorako egiten duen erabilera. Egoera laxatu ahala, logikoena litzateke dialektika hori ere malgutzea eta presoek gaia, blokeorako eta erabilera politikorako baino, prozesuan aurrerapauso esanguratsua emateko baliatzea.

Amnistiarik gabe, bakerik ez oihukatu du ezker abertzaleak luzaroan, eta akaso, lehen baino orain hartzen du esaldiak zentzurik egiazkoena. Amnistiarik ez da posible indar sistemikoentzat; espetxerako baldintzak berriro sortuko ez dituen egoera da amnistia presoentzat: bihur bedi txikle eta txikitu-luzatu dadila bakoitzari bakea lantzen utziko dion neurrian. Langa hau gainditzeko, ezker abertzalearen aldeabartasuna ez dela nahikoa da egungo arazo nagusia, kirtena PPrene eskuetan dela eta inoiz baino gatibuago bihurtu dituela presoak. Baina gizarteak nekez irabaziko du bakerik hori konpondu ezean, eta gizarteak nahi du bakearena borobiltzea, batez ere orain, behingoz posible ikusten duenean. Azken finean, inozoenak ere badaki presoena eta biktimena konpondu barik, bizikidetzak jai duela.



Madrilgo Gobernuaren porlan posizioa presoek teiltzura eraman nahiko lukete batzuek, orain gatazkaren irtenbidea Moncloan baino, Herrera de la Manchan edo Fresnesen balego moduan

PELLO ZUBIRIA

Txernobylen ikasiak Fukushimarako gogoratzuz Genevan

Bi egunez Europako eta Japoniako mediku eta jakintsu engaiatuek berrikusi dituzte Txernobyngo hondamendi nuklearretik Fukushimakora aztertu eta ikasitakoak. Zergatik erreazionatu den berandu, zer den ezkututzen dena eta jakin beharrekoa erradioaktibitatearen kalteez, nola lagundu eskualde kutsatuetan bizirautea kondematutako jendei.

HEROIAK AURKITU DITUT. Zinekoak bezalakoak ez. Benetakoak, hezur eta haragizkoak. Gizon eta emakumeak nor bere herrialdean borrokan ari direnak egia ezagutu dadin. Arriskatzuz isekak jasotzea, mesprezua, presondegia, arriskatzuz beren osasuna, bizia, eskuzabaltasunez atsendenik hartu gabe, batzuku azken 26 urteotan, beste batzuku urte bete-tik hona. Denek dute beranduegi izan baino lehen jendea ohartarazi nahi bera. Argia zabaltzea energia atomikoak osasunean dituen arriskuez, horra beren helburua. Ez dira asko baina Genevan bildurik 2012ko maiatzaren 12 eta 13an berretsi dute izugarrikeria salatzeak daukaten erabakia. Zalaparta handian bizi den munduari axola ez arren, hor zeuden, elkarrekin, zutik, bizirik. Mezua bidali dute, 200 baino gehiago izan gara lekuko. Entzun diezaiegun”.

Hitzok Pierre Fetetek idatzi ditu, 2011ko apiriletik *Fukushima-over-blog* gunea mugiarazten duenak. Horrela ekin dio *IndependentWHO* erakundeak deituta Suitzako Genevan burutu den *Scientific and Citizen Forum on Radioprotection* jardunaldien kontakizunari.

IndependentWHO da klase askotako boluntarioz osatutako erakunde bat 2007tik egunero salatzen duena Osasunaren Munduko Erakundeak

(WHO ingelesezko sigletan, euskarazkoetan OME) Energia Atomikoren Erakundearekiko daukan menpekotasuna. Bi erakundeek 1959an sinatu zuten itun bat adostuz osasun gaietan nuklearrekin zerikusirik zuen ezer baldin bazen elkarri egingo diotela kontsulta; *IndependentWHO*ko ekintzaileek salatzen dute geroztik OMEk ez bakarrik ez duela aski ikertu erradiazioen kalteetan baizik eta istripu nuklearren ondorioak estali eta zurrizten lagundu diola industriari.

Bost urteotako lan egun guztietan egon dira ekintzaileak pankartak hartuta Genevako OMEren egoitzaren aurrean protestan. Maiatzeko jardunaldietan bildu dituzte OMEk benetan munduko jendeen osasuna zaintzeko landu beharko litzuzkeen ildoetan sakontzeko Txernobyngoaz geroztik horretan ari direnak eta Fukushimako hondamendiak mugiarazita elkartu zaizkienak.

Dena zen mami 200 laguneko taldean. Izan dira idazle eta kazetariak, esaterako *Tchernobyl: déni passé, menace future?* liburuaren egile Marc Molitor eta Wladimir Tchertkoff *Le Crime de Tchernobyl*ena. Baziren Europako jakintsu konprometitua, hala nola Roland Desbordes Frantziako CRIIRADeko burua, Paul Lannoye eurodiputatu ohia, Sophie

Jan Hemmer gazte alemanak bere *Teknorg* blogean dauka argazki historiko hau, maiatzaren 12an. Ezkerretik eskuinera, Suitzako Genevan Txernobyngo hondamenditik Fukushimakora arte ikasi denaz hitz egiteko bildu diren aditu militanteetako lau daude pankartari eusten: Chris Busby kimikari, mediku eta irakasle irlandarra, txapela buruan; Michèle Rivasi CRIIRADen sortzaile eta gaur eurodiputatu dena Europe-Ecologie taldean; eta Txernobylen Bielorrusia eta Ukrainako herritarrengan eragin dituen osasun kalteak aztertu eta salatu dituzten Bandazhevsky senar-emazteak, Yuri anatomopatologoa eta Galina pediatra kardiologoa. Yuri kartzelarekin pagatua da bere ausardia. Beti salatu du Bielorrusian agintzen duen Lukashenko eta zentral atomikoak dauzkaten *lobby* nuklearra elkarri eskua emanda ari direla.

Fauconnier Txernobyngoak Korsikan izan duen eragina aztertu duen medikua, Michèle Rivasi CRIIRADeko fundatzaile eta gaur eurodiputatu dena, Michel Fernex OMEko aholkulari izana edo Chris Busby mediku eta kimikalari galesa, energia nuklearraren aurkako ekintzaile beroena.

Fukushimakoaz geroztik Japonian gaixoak artatzen eta ikerlanean ari diren etatik sorta hurbildu da Genevara: Shinzo Kimura, Eisuke Matsu, Kolin Kobayashi, Aya Marumori, Wataru Iwata, Fukushimako amen elkarteko buru Miwa Chiwaki... Baina ikusminik handiena piztu dute Txernobylenko istripuaren ondorioak lekuan bertan ikusi eta borrokatzeak aukera izan duten aditu errusiar eta bielorrusiarrek.

Kutsatuta bizi behar dugunez

Alexei Yablokov mediku eta Errusiako Zientzien Akademiako kidea da, Vassily Nesterenkorekin eta Alexei Nesterenkorekin argitaratu zuen Txernobylen gizakien osasunean egindako kalteen analisirik famatuenetakoa dena, *Chernobyl – Consequences of the Catastrophe for People and the Environment*. Interneten doan eskuragai dago 349 orrialdeko ikerlan mardula. Yablokoven ondoren zen Alexei Nesterenko bielorrusiar



siarra ere mintzatu zen biltzarrean. Bitxikeria nabarmentzeko, Txernobyngo zentralak porrot egin zue-nean biak ziren herritar sobietarrak.

Bielorrusiako hiriburu Minsken Nesterenkoren alboan Belrad institutuko zuzendaritzan dagoen Vladimir Babenkok “Txernobyldik Fukushima” izeneko hitzaldia eman du. Zerbait ikasi ote dugu hogeita bost urteotan?

“Ondorio nagusia etsipengarria da”, dio Babenkok. “Txernobyngo katastrofeak ez dio deus irakatsi munduari. Txernobyl eta Fukushima: arazo berak, errore berak. Garai batean uste izan zen Txernobyngo hain larria gertatu zela sistema sobietarragatik. Japonian sistema arras diferentea daukagu, inguru-

men, kultura eta ohitura ezberdinak. Baina akatsak berdinak dira. Akats nagusia datza istripu nuklearraren benetako neurria ezkutatu nahian, egia ezkutatzeko ahalegi-nean”.

Hunkituta 25 urte beranduago Txernobyngo baino askoz istripu larriagoaren aurrean Japoniako herritarrek ez daukatelako aski informazio beren buruak egunero-ko bizimoduan babesteko, oparia ekarri du Babenkok: “Nola babestu norbere burua eta haurra erradiazioetatik” liburua japonierara eta frantsesera itzulita.

Beste bi protagonistak izan dira Yuri Bandazhevsky eta Galina Bandazhevskaya senar-emazteak. Senarra kartzelatik pasa ondoren Fran-

tziara atzerriratu ziren, beranduago Ukrainako Kiev hiriburuan kokatzeko. Han daukate Ekologia eta Osasuna izeneko analisi eta koordinazio zentroa.

Pediatra eta kardiologoa den Galinak Bielorrusiako haurren osasuna gaur egun nolakoa den azaldu du. Zeren eta esan duenez, “26 urte pasa diren arren oraindik aktualitatezkoa eta oso gutxi ezagutua baita arazo nagusia: eremu kutsatuetan bizi diren jendeen osasun egoera”.

Yuri Bandazhevsky titulu hau eman dio bere mintzaldiari: “Iraupen luzeko isotopoak modu kronikoan barneratzeagatik sindrometik abiatuta, herritarrak erradiazioetatik babesteko programa eta politikak nola osatu: eredu integratu bat”.

Bandazhevskyren hitzetan, “iraupen luzeko isotopoen sindromeak erakusten duen arren gizakiaren organismo osoan zesio erradioaktiboak daukan eragina, medikuntza ofizialak praktikan ez du kontutan hartzen, eta horrek asko mugatzen du eremu kutsatuetan bizi diren herritarrei ematen zaien laguntza-aren eraginkortasuna”.

Egunero kutsaturik bizi behar dutenentzako programak eskatzen du: jendeen eta jakien erradiazioen kontrola, prebentzio eta laguntza planak, desorekan diren gorputzei laguntzeko elikadura orekatuak, populazioarentzako jaki erradiazio-gabeak bermatzea... Osasuntsuago bizirauten laguntzeko programa. Bielorrusiako lurraldearen %23 kutsatuta dago eta bertan bizi dira 250.000 haur ■



ZINKUNEGI
OPTIKA

Garantia.

Egunez egun zure konfiantza geureganatzen dugu,
produktu berriak eta zerbitzu berriak etengabe bilatuz.

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com · www.zinkunegioptika.com



Jose Ignazio Ansorena

Athletic

* * *

Udaltzaina Madrilgo Cibeles Plazan dabilela, gizon dotorea hurreratu eta *chulapo* doinu nabarmenaz hizketan hasi zaio:

– Dihculpe agente. ¿Me podría uhté indicá ónde ehtá la Calle Alcalá?

Udaltzainak zehar begirada egin eta berehala erantzun dio:

– ¿Me quiere usted tomar el pelo? Un madrileño como usted, ¿no sabe que aquí mismo está la famosa Calle de Alcalá?

– Oiga, que yo soy de Bilbao.

– Ya ¿y ese acento?

– De vení a lah finaleh.

* * *

Neure gaztetan txiste hau kontatzen genuen Donostian bilbotarren panparroikeriaz barre egiteko. Ene jaioterrian, oroimena dudanetik, azaleko eta txantxetako erronkatxoa izan baita bilbotarrekin. Azken urteetan, baina, nago azaletik mamira, erronkatxotik gorrotora pasatzen ari ote den. Hainbat hedabidek eta politikaririk horretarako laguntza emanda. Eta horren agerpenik garbiena futbolaren alorrean gertatzen da.

Agian futbolzale eta jarraitzaile ez naizelako, niri bilbotarren izateko manera hori –bada bizitza sozialean agertzeko *bilbotar modu bat*– gustatu egiten zait eta maiz inbiria ere ematen dit. Euskal Herriko antzektokietan ibili garenok badakigu Bilboko eta Bizkaiko publikoak, oro har, askoz erantzun beroagoa ematen diola artistari esaterako Gipuzkoakoak baino. Eta ez tontoagoak direlako edo kriterio eskasagoa dutelako. Emozioak xaloxalo agertzeko ez dutelako hainbesteko erreparurik baizik.

Horregatik ere, azken asteetan, Athleticen inguruan hainbeste festa eta zantzo gehiegizkoa ote zen kexua entzuten nuenean, niri Athleticen *Eup!* famatua oihukatzeke gogoa sortzen zitzaidan. Aitortu behar dugulako Athletic dela, Bizkaikoaz gainera, Euskal Herriko futbol taldea. Gipuzkoakoa Reala den bezala. Donostia ere mundu zabalaren ikuspegitik begiratuta, Bilboko auzo bat besterik ez da. Hori bai, auzorik ederrena.



DANI BLANCO

Nire ezagun antibilbotar batek, hauen euskara ezagutza faltari iseka egiteko, zioen han *Maitetxu mia* zortzikoa euskaraz ari direlakoan abesten dutela. Horren harira komeni da aipatzea lehen mailako euskaraz duen bakarra Athletic dela. Alavés eta Osasuna taldeek gaztelaniaz dituzte: *Bravo equipo albiazul...* eta *El once de Osasuna, valiente y luchador...* Realarena ez da erraza jakiten zein hizkuntzaz dagoen. Onenaz ere, sasi-euskaraz dagoela esan liteke.

Athleticen himnoaren historia aipagarria da. 1928an Feliziano Beobide musikari tolosarrak *Altza gaztiak* biribilketa eskaini zion klubari eta berehala zabaldu zen himno gisan. Gehiena Beobidek berak osatua bazen ere, bigarren atalean, herri doinua zelakoan, Jose Olai-zola hernaniarrak 1904an Zarauzko Batzokiaren zabalpenerako asmatutako doinua jarri zuen: *Eusko, euskotarrak gera ta maite degu aberria...* 1936ko gerraondoan, agintari berriek berehala jo zuten begiz himnoa eta, txistulariek jotzen jarraitzen bazuten ere, ez zen abestea onartzen. 1950ean, Goyo Nadal bilbotarrak himno berri baterako gaztelaniazko hitzak jarri zituen: "Tiene Bilbao un gran tesoro que adora y mima con gran pasión, su club de fútbol de bella historia, lleno de gloria mil veces campeón. (...). Del fútbol eres rey, te llaman *El león* y la afición es ley del fútbol español". Doinua Timoteo Urrengoetxea bermeotarrak sortu zuen. Esperanza Agirrerri hauxe gustatzen zitzaion.

1982an, garai berriak zirela eta, Zuzendaritza Batzordeak athleticzale amorratua zen Karmelo Bernaola musikari otxandiotarrari eskatu zion himno berria prestatzea. Eta honek, kriterio onez, Beobidek eta Olaizolak sortutakoaren moldaketa egin zuen, ez besterik. Hitzak, ordea, Antton Zubikarai ondarrutarrak (Augustin idazlearen semea bera) jarri zituen.

Laburrean, Athleticen himnoaren doinuak bi gipuzkoarrek sortua da: Jose Olaizolak eta Feliziano Beobidek. Herri txikia gara eta. *Eup!* ■



Azken asteetan, Athleticaren inguruan hainbeste festa eta zantzo gehiegizkoa ote zen kexua entzuten nuenean, niri Athleticaren *Eup!* famatua oihukatzeke gogoa sortzen zitzaidan

ASTE HONETAKO

zozketak



Bilboko Kafe Antzokia

Bazkaria
bi lagunentzat

Done Bikendi, 2
Bilbo BIZKAIA

www.kafeantzokia.com

1



1512-2012 NAFARROA BIZIRIK

Iruñeko zezen plazan

Ekainaren 16ko Kontzerturako
6 harpiderentzat bina sarrera

Iruñea NAFARROA

www.1512-2012.com

2



EUREKA! zientzia museoa

Musikaren eguna eta udako
solstizioaren ospakizuna
Ekainaren 23an 12:00tan

2 harpidedunentzat
bina sarrera

Mikeletegi, 43
Donostia GIPUZKOA

3



Euskal Eskola Publikoaren 21. jaia

2 kamiseta
haurrentzako opari

www.ehige.org/jaia2012

4



Okatxu

2 kamiseta opari

www.argia.com/denda

5

AZKEN IRABAZLEAK (2324. Argia)

TXONDORRA erretegia

- Iñaki Mundiñano Larraza (Etxarri-Aranatz)

SAN TELMO MUSEOA

- Imanol Ugarte Murua (Oñati)
- Andoni Sarriegi Eskisabel (Beasain)
- Victoria Txurruka Azpiazu (Ondarroa)

EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA haurren kamisetak

- Xabier Zendoia Aizpurua (Zumaia)
- Ana M.Zubiarrearteria (Eibar)

ARTIUM Arte garaikideko euskal zentro museoa

- Jon Artano Izeta (Zestoa)
- Joseba Landaluze Moraza (Gasteiz)
- Igor Jimenez Honrado (Elorrio)

MUNDUKO IPUINAK

- Begoña Azpeitia Begiristain (Alegia)
- Pedro Jose Larrea Urtaran (Laudio)

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

PARTE HARTZEKO


Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30

Tel: 943 36 72 85 • gunea@argia.com

www.argia.com/gunea

Gunea

argia



ARGIAko harpidedumentzat
eskaintza berezia

Elur-antzara

Paul Gallico

Ane Urrestarazuk itzulia

Uxue Alberdik irakurria


Aitziber Alonsok ilustratua



*Eskuratu dohainik eleberri honen **e-liburua** eta **audio-liburua***

"Elur-antzara"-ren gaiak bakardadea eta amodioa, bazterkeria eta elkarlana, gerra eta izadia dira. Bakartuta bizi den artista baten eta neska umil baten istorio hunkigarria kontatzen digu Paul Gallico-k.

1941etik, "Elur-antzara" ("The Snow Goose") ez da inoiz falta izan Ingalaterrako eta AEBko liburu-dendetan.



liburua

14 €

12,60 €
ARGIAko
harpideentzat

ARGIA eta HamaikaBooks-en eskutik, "Elur Antzara"-ren **e-liburua** eta **audio-liburua** dohainik eskainiko zaizkie ARGIAko harpidedunei.

Eskuratu zure pasahitza:

+34 943 371 545

harpide@argia.com

argia

HamaikaBooks